



# **Basque Cultural Observatory**

**Session with  
International  
Experts**

Bilbao, 9th May 2018

**REPORT**

## AURKIBIDEA

PROGRAMA .....	3
SARRERA.....	4
EGITURA ETA METODOLOGIA AURKEZTEA .....	5
KULTURA-OHITUREI ETA -PRAKTIKEI BURUZKO ESTATISTIKA.....	7
Landu beharreko gaiak - Kultura-ohiturak eta -praktikak .....	7
Eztabaida - Kultura-ohiturak eta -praktikak .....	10
Elementu berriak txertatzea konparagarritasunari eutsiz. ....	10
Parte hartzeko moduetan oinarritutako ikuspegia.....	12
Aldagai soziodemografikoak .....	12
Generoaren gaia. ....	14
Partaidetza digitala.....	15
Azalpen-dimentsioa eta parte hartzeko oztopoak/pizgarriak .....	17
Bestelakoak .....	20
KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK .....	<b>Errorea! Laster-marka definitu gabe.</b>
Eztabaidagaiak - Kultura eta Sormen Industriak.....	23
Eztabaida - Kultura eta Sormen Industriak .....	26
KSlak identifikatzea: Balio-katea eta aplikatutako irizpideak .....	26
Eduki Digitalak.....	31
Salbuespenak: modaren eta diseinuaren sektoreetako berezitasunak.....	32
Autonomoak sartzea .....	32
Banaketaren, artisautzaren eta goi-mailako sukaldaritzaren azterketa .....	34
Edukiak eta beste hainbat gai .....	34
Ondorioak.....	35
GONBIDATUTAKO ADITUAK .....	37
KEBaren LEHENAGOKO LANAK .....	38
MATERIAL OSAGARRIA.....	40

## PROGRAMA

- 09:00 – 09:30** Parte-hartzaileak iristea
- 09:30 – 09:50** Ongi etorria eta hasiera  
Joxean Muñoz Otaegi, Eusko Jaurlaritzaren Kulturako sailburuordea
- 09:50 – 10:00** Egitura eta metodologia aurkeztea
- 10:00 – 11:15** Osoko bilkura: Kultura-ohiturak I  
Presidentea: Mikel Etxeberría Agirresarobe, Kulturaren Euskal Behatokiaren arduraduna
- 11:15 – 11:45** *Kafea hartzeko etenaldia*
- 11:45 – 13:00** Osoko bilkura: Kultura-ohiturak II
- 13:00 – 14:30** *Bazkaltzeko etenaldia*
- 14:30 – 16:30** Osoko bilkura: KSIak  
Presidentea: Sabin Goitia Goienetxea, KSIetan aholkularia, Kultura eta Hizkuntza Politika Departamentua, Eusko Jaurlaritza
- 16.30** Saioaren amaiera eta parte-hartzaileak itzultzea



## SARRERA

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) nazioarteko adituekin antolatutako saioari hasiera emateko, Eusko Jaurlaritzaren Kulturako sailburuorde Joxean Muñoz Otaegi jaunak hartu zuen hitza<sup>1</sup>. Parte-hartzaileei ongi etorria egin eta esker ona adierazi zien euskaraz, eta, gero, saioan eztabaidatuko ziren zehaztasunak euskal testuinguruan ulertzeko hizkuntza hori, euskara, zein garrantzitsua den nabarmendu zuen.

Joxean Muñoz Otaegik KEBaren egiteko bat ere nabarmendu zuen, hain zuzen ere, datuen eta informazioaren hornitzaile izatearena, oso beharrezkoak baitira kulturaren eremuan politikak formulatzeko. KEBaren helburua ez da soilik datuak ematea, baizik eta baita datuak partekatu ahal izatea ere; bestela esateko, parteka daitezkeen datuak lortzea du helburu, eta, hartara, sektoreko eragileekin, kultura-eragileekin eta gizartearekin, oro har, baterako azterketa bat egitea.

Zeregin konplexu hori onartu eta bere gain hartu izangatik, sailburuordeak esker ona adierazi zien honako hauei, egindako lanetatik: duela 10 urte sortu zenetik KEBaren arduradun ohia izandako Lourdes Aranguren Sudupe andreari, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Josean Urdangarín Arrizabalaga jaunari, urte hauetan guztietan KEBaren funtsezko bazkide izan den ICC Consultors aholkularitza-enpresari, eta KEBaren egungo arduradun Mikel Etxeberria Agirresarobe jaunari.

Behatokia tresna bat da eta egokituta egon behar du beti, testuinguru aldakor baten barruan dagoen aldetik, politikak errealitate berriekin bat etor daitezzen une oro. Saioan landutako bi gaiak konplexuak eta funtsezkoak dira egungo kulturaren egoeran. Alde batetik, kultura-arloko ohitura eta jardunbideak asko aldatzen ari dira, eta, bestetik, Kultura eta Sormen Industrien (KSI) gaia berriagoa da, eta gaur egun Europa osoan eta Europatik kanpo ere eztabaidatzen ari dira horren gainean. KSIak, gainera, oso garrantzitsuak dira Eusko Jaurlaritzarentzat, espezializazio adimendunaren estrategiaren barruan ekintza-esparrua zabaltzeko aukera bat dakarten aldetik.

Azkenik, ezagutzaren garapena Europako testuinguruaren eta egungo eztabaiden esparruan kokatzearen garrantzia nabarmendu zuen Joxean Muñoz Otaegik, eta eskerrak eman zizkien bertako nahiz nazioarteko parte-hartzaileei saioan parte hartzeagatik eta haien esperientziak eta metatutako ezagutzak partekatzeke prest agertzeagatik.

<sup>1</sup> Kontsultatu ekitaldiari buruzko informazio-dokumentua parte-hartzaileen profilari eta haien ibilbide profesionalari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero.

## EGITURA ETA METODOLOGIA AURKEZTEA

Eusko Jaurlaritzaren Kulturako sailburuorde Joxean Muñoz Otaegi jaunaren sarrera-hitzaldiaren ondoren, saioaren koordinatzaile zientifikoak, Cristina Ortega Nuere andreak, saiorako aurreikusitako oinarriak, egitura eta metodologia aurkeztu zituen.

Ortega Nuerek azaldu zuenez, duela 10 urte sortu zenetik, KEBaren bokazioa lankidetzako lana sustatzea izan da, tokiko eta nazioarteko eragile eta adituekin batera. Tokiko testuinguruan, estatistika-eragiketa guztien diseinua eta ezarpena alde aurretik eztabaidatu ziren alde interesdun nagusiekin. Era berean, estatistika-esparrua eta ikerketa kualitatiboaren lana beti izan dira eztabaidagai beste behatoki batzuekin.

Gaur egun, KEBa bi proiektu handitan sartuta dago: Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko Estatistikaren beste edizio bat prestatzea, eta Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistika zabaltzea, sormen-industriak txertatzeko. Proiektuak ez dira berri-berriak, aurreko estatistiketatik datozen aldetik. Alabaina, bi kasuetan erantzun berriak beharko dira ikerketa-erronka berrien aurrean. Adibidez, lehenengo kasuan, estatistika-eragiketa duela 10 urte egin zen, baina aisialdi digitalean ematen dugun denbora handitzearen ondorioz izandako aldaketak direla eta, hausnarketa sakona egin beharra dago. Adibide modura, 15-29 urteko EAEko gazteen % 49,6k egunero baliatzen dituzte aisialdiko jarduera digitalak, betiere Gazteen Euskal Behatokiak 2016tik jasotako aisialdi digitalari buruzko adierazleen arabera. Ildo beretik, besteak beste, Nesta eta Arts Council England erakundeek argitaratutako Digital Culture Report 2017 azterlan kuantitatibo eta kualitatiboaren arabera, "Teknologia digitalak aldarazi egin du arteekin eta kulturarekin erlazionatzeko gure modua, (...) Museoetako bildumak Internet bidez ikusten ditugu, eta antzerkia ikusteko sarrerak mugikorretik erosten ditugu".

Kontsultan elementu berriak sartu izanak (besteak beste, dimentsio digitala) erronka bikoitza dakar: alde batetik, arazo "berri" eta konplexuei nola aurre egin, eta, bestetik, nola txertatu estatistiketan baina, aldi berean, nola eutsi estatistika horien oinarriari, aurreko bertsioekin alderatzeko modukoak izan daitezten. Horixe izan da beste testuinguru batzuetako adituekin izandako eztabaidan proposatu den galdera nagusia, ziur baikaude besteak ikerketa kuantitatiboan duten esperientzia, informazioa elkartrukatzea eta lan-estrategiak baliozkotzea lagungarri eta aberasgarri izan daitezkeela KEBaren lana garatzeko eta, gainera, beste behatoki batzuen lana indartzeko.

Goian aipatu ditugun bi estatistika-eragiketak diseinatzeko, hiru zehaztapen-maila daude, eta, beraz, eztabaidarako hiru maila potentzial:

1. Kontzeptu-esparrua
2. Gaikako blokeak
3. Inkestak

Eragiketa bakoitzaren kontzeptu-esparrua diseinatzeko garaian, nazioarteko hainbat eredu aztertzen zituzten dokumentuen azterketa batean oinarritu zen. Saioan parte hartu zutenek bi kontzeptu-esparruen laburpen bana jaso zuten ekitaldia baino lehen. Bestalde, inkesta diseinatuta eta tokiko alde interesdunekin kontrastatuta dago jada.

Aurrekoan oinarrituta, saioaren helburua eztabaidatzea izan zen; hain zuzen ere, kultura-behatokiek adierazle berriak diseinatzeko garaian edo aurreko estatistikak eguneratzeko garaian izaten dituzten arazo nagusien gainean eztabaidatzea, betiere edozein inkestak bete beharreko baldintzak betetze aldera: *konparagarritasuna, koherentzia eta egokigarritasuna*.

Horren ildotik, jarraian, erantzun beharreko galdera motaren adibide bat aurkituko dugu:

Arazo nagusiei aurre egiten diegunean EAEko herritarren kultura-ohitura eta -praktiketan eragiten duten azken aldaketa globalak aintzat hartuta egiten ari al gara? Garatzen ari garen adierazleek ahalbidetzen al digute beste tokiko testuinguru batzuekin alderatzea, eta, aldi berean, eskaintzen al digute geure bilakaeraren argazki bat, gure nortasunaren alderdi bat bera ere galdu gabe? Kultura-ohitura eta -praktiken dimentsio digitalari buruzko galdera egokiak sartzen eta egiten al ditugu? Genero-arazoei behar bezala egiten al diegu aurre?

Tokiko eta nazioarteko adituak gonbidatu genituen elkarrekin hausnarketa egiteko, galdera horiei eta beste batzuei erantzuna bilatzearren, uste baikenuen lagungarria izan zitekeela KEBarentzat, etorkizuneko erronkei begira, eta lagungarria izan zitekeela beste lurralde batzuetan kulturaren bilakaera behatzeaz arduratzen diren beste erakunde batzuentzat ere.

Parte-hartzaileak bi esparru horietako batean (kultura-ohitura eta -praktikak, edo KSIak) edo bietan esperientzia dutelako edo ongi ezagutzen dituztelako gonbidatu genituen. Dena den, eztabaidan denek egin ditzakete ekarpen garrantzitsuak bi arlo horietan. Horregatik, osoko bilkurak egitea proposatu genuen, parte-hartzaile guztiek bi eremuetan ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Saioa bi bloke nagusitan banatu zen: lehena goizean, Kultura Ohitura eta Praktikei buruzko Estatistikaren gaineko eztabaida; eta bigarrena arratsaldean, KSIak Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikan txertatzeari buruz.

## KULTURA-OHITUREI ETA -PRAKTIKEI BURUZKO ESTADISTIKA

Mikel Etxeberria Agirresarobe KEBaren egungo arduraduna arduratu zen eztabaida-bloke tematiko honi hasiera emateaz, eta Xavier Fina Ribó aurkeztu ere egin zuen; Fina jaunak lehen estatistika-eragiketa horren lehen edizioaren sorkuntza eta diseinua bizi izan zituen duela 10 urte. Bestalde, Xavier Finak Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko Estatistika prestatzeko ordura arte egindako lanaren berri eman zuen, baita landu beharreko gai nagusiak zeintzuk ziren ere.

### Landu beharreko gaiak - Kultura-ohiturak eta -praktikak

Landu beharreko gai nagusien aurkezpenean, Xavier Finak:

- Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko Estatistikaren ikuspegiaren eta diseinuaren arrazonomendua azaldu zuen. Ez zituen inkestaren galdera zehatzak aurkeztu, baina hausnarketa-prozesu luze baten ondorio dira guztiak ere. Dena den, hartutako ikuspegiak eztabaidagarriak dira eta saioaren helburua horien gainean eztabaidatzea izan zen.
- Estatistika diseinatzeko garaian sortu ziren arazo konplikatuenekin (zalantza gehiago eragin zituztelako) lotutako galdera zehatzak proposatu zituen.

Estatistika-eragiketa hau nondik datorren jakitea garrantzitsua da. Duela 10 urte antzeko eragiketa bat egin zen, hain zuzen ere, [Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika \(2007-2008\)](#), eta horren aurretik ere nazioarteko eztabaida bat izan zen beste behatoki batzuekin. Orain egiten ari den moduan, garai hartan lehen proposamen bat prestatu genuen eta, gero, KEBak baino askoz ere esperientzia handiagoa zuten beste behatoki batzuekin partekatu genuen. KEBaren akatsak, zalantzak eta ikuspegiak esperientzia handiagoko beste eragile batzuen akats, zalantza eta ikuspegien antzekoak zirela konturatu ginen. KEBa hasiberria da, oraindik ere, beste behatoki batzuekin alderatuz gero, baina nolahi ere, 10 urte hauetan zerbait ikasi dugu.

Lehen eragiketa hori ez da berriro egin oraindik (eta, beraz, orain eztabaidatzen ari garen estatistika-eragiketa bigarren edizioa izango da), baina 2016. urtean [Kultura Ohiturei buruzko Panela](#) prestatzen hasi zen, 204 gaztek osatutako lagin batekin. Populazio hori ez da estatistikoki adierazgarria, baina panelaren hiru jasoalditan jo dugu 204 gazte horiengana euren kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko galderak eta, are interesgarriagoa dena, euren kultura-ohitura eta -praktikak azaltzen dituzten motibazio eta arrazoiei buruzko galderak erantzun ditzaten. Produktu hori ez da estatistika-eragiketaren ordezkoa, baina egia da osagarria izan badela, eta emaitza interesgarri asko ematen ari da.

Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko lehen estatistika-eragiketara itzulita, hasierako ideia 5 urtean behin errepikatzea zen. Jada 10 urte betetzera doaz eta, agian, maiztasunik egokiena zein den pentsa genezake (5 urte, 10 urte edo tarteko zerbait).

Estatistika-eragiketa horren edizio berria lantzen hasitakoan, KEBak honako erronka hauei egin behar izan die aurre:

- *Elementu berriak*: kultura-arloko eta gizarte-arloko errealitatea biziki aldatu da azken 10 urteotan, eta kultura kontsumitzeko eta praktikatzeko moduak ere errotik eraldatu dira. Horrenbestez, galdera motak eta lortuko ditugun adierazle motak ere aldatu egin behar dira. Kontuan izan beharreko elementu berri horien artean, dimentsio digitala duela 10 urte baino askoz ere garrantzitsuagoa da. Ikerketa honen azalpen-bokazioa ere askoz garrantzitsuagoa da orain, duela hamarkada bat hasitako eztabaiden ondorioz. Garai hartan, galdera tradizionalen azalpen-potentzialari buruzko galderak atera ziren: Inkesta erantzun duenak zuek zer adierazten du haren kultura-praktikari buruz? Zer nolako garrantzia du datu horrek ez badakigu inkesta erantzun duenak zer liburu mota irakurtzen dituen, zergatik irakurtzen dituen edo irakurketa horrek zer nolako eragina duen haren gain? Edizio berri honetan, horrelako azalpen-galderak ahal bezainbeste sartu ditugu, praktika bera bezain adierazgarriak edo adierazgarriagoak diren aldetik, baina tradizionalki ohiturei buruzko inkestetatik kanpo utzi izan dira. Azkenik, kultura-praktika aktiboei garrantzi handiagoa eman diegu.

- *Jarraitutasun-elementuak*: Elementu berriak txertatu ahala, aurreko edizioekin konparazioak (konparazio diakronikoa) egiteko aukerak murriztu egiten dira, baita beste testuinguru batzuekin ere.

Lehen tentsioa sortzen da hor: alde batetik, denborazko konparazioak egitea eta beste lurralde batzuekin konparatzea (ohiturei eta praktikei buruzko inkestak egitean, behatoki gehienek aldagai, galdera eta adierazle tradizionalak erabiltzen dituzte azkenean) ahalbidetzen duten adierazleen sortari eustearen eta, bestetik, elementu berri horiek txertatzearen arteko tentsioa. Lehen tentsio horren lehen konponbidea zera izan zen, "dena nahi dugu", baina hori ez da egingarria, modu pragmatikoan.

Zentzu horretan, galderak honelakoak izan zitezkeen: Nola oreka ditzakegu bi ikuspegiak? Zeinek izan beharko luke lehentasuna? Nola gaindi ditzakegu galdera "tradizionalak" baina konparagarritasun-maila txiki bati eutsita?

Estatistika-eragiketaren diseinuan jarraitutako logikari jarraikiz, hiru praktika mota bereizi ditugu:

- *Partaidetza hartzailea* (inkestako 2. blokea): kontsumitzailea edo profesionala ez da kultura-praktikaren eragile nagusia. Irakurleak edo kontzertu bateko entzuleak edo antzerki-lan bateko ikusleak, esaterako, aktibotzat jotzen dira (irakurri, entzun, ikusi... egiten dutelako). Hortaz, praktika hartzailea ez da pasibotzat hartu behar, baina "igorleak" lidergo-eginkizuna betetzen du ("hartzaileari" dagokionez).
- *Partaidetza sortzailea* (3. blokea), dela demokrazia kulturalaren ikuspegitik (guztiok kulturaren sortzaile potentzial garena dio), dela praktika erdi-profesionalaren edo zaletuaren ikuspegitik begiratuta.
- *Partaidetza digitala* (4. blokea): kasu honetan are zailagoa da praktika hartzailearen eta sortzailearen arteko bereizketa egitea.
- *Euskarazko partaidetza* (zeharkako gaia, ez da inkestako bloke berezi bat): bereziki garrantzitsua da testuinguru honetan, hizkuntza propioa izateak berariazko kultura-ohitura, -praktika eta -politika jakin batzuk baldintzatzen baititu.

Horrekin lotuta, beste galdera bat sortu da: Ikuspegi hori, partaidetza motetan oinarritutakoa, bat al dator egungo praktikekin?



Kultura-praktikak deskribatzeko, interpretatzeko eta azaltzeko helburuari dagokionez, *azalpen-dimentsioak* (1. blokea) txertatu ditugu, nahi genukeenaren eta egingarria denaren arteko oreka lortzeko asmoz. Aldagai soziologiko tradizionalak aintzat hartuta, inkestan honako hauekin zerikusia duten alderdiei buruzko galderak txertatu dira:

- *Arrazoiak*, hau da, kulturen parte hartzea ahalbidetzen duten baldintzak zeintzuk diren: denbora libre izateko aukera ematen duten baldintzak, bizi-ziklo tradizionalari jarraikiz; haurtzaroan bizi izandako kultura-giroa; euskarazko kultura-jardueretarako oztupoak eta pizgarriak; gizartearen eragina; kultura-arloko informazioa; kulturarekiko jarrerak eta balioak. Azken horiei dagokienez, kultura norberaren bizimoduarekin lotzea batzuetan arazo-iturri izan daitekeela nabarmendu behar da. Kulturari buruz galdetzen zaionean, esaterako, inkesta erantzuten ari denak esan dezake aspergarria dela edo bere bizimoduarekin ez duela inolako loturarik, baina gero, egun osoa musika entzuten ematen duela erantzuten du (eta hala ere, ez du bere burua kultura-kontsumitzailetzat edo kultura-profesionaltzat jotzen).
- Alde batetik, kultura-praktikak zer nolako *inpaktua* duten pertsonen bizimoduan, balioei dagokienez, hau da, kulturak zenbateraino sortzen duen kohesioa, aniztasuna, tolerantzia eta abar; eta, bestetik, kultura-esperientziak zenbateraino diren gogobetegarriak (errepikapen-indizeekin ere lotuta dago).

Arlo horretan, galderak oso argi daude: Elementu berri horiek informazio baliagarria ematen al dute egungo kultura-praktikak ulertzeko eta azaltzeko? Beste faktore garrantzitsu batzuk ere aintzat hartu behar al dira?

Dimentsio soziologikoari dagokionez, inkesta kontserbadore samarra da. Inkesta Euskal Herri osoan aplikatzen da, hau da, euskararen kultura- eta gizarte-lurraldean: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Lagina adierazgarria da inkestatuaren jatorrizko populazioaren tamainari eta lurralde historikoari dagokienez, sexuari, adinari eta euskara-mailari dagokienez. Inkestatuaren profila osatzeko, jatorriari, familia-egoerari, heziketa-mailari eta profil sozioekonomikoari buruzko informazioa biltzen da. Profil pertsonala praktikekin gurutzatuko da. Dimentsio soziologiko horiek txertatu ziren duela 10 urte diseinatutako inkestan (aldagai berriak funtsean azalpenezkoak dira). Beste dimentsio soziologiko batzuk ere hartu beharko al lirarteke kontuan?

Azkenik, zeharkako arazoen galdera generikoak eragiten dituzte. Adibidez, generoarekin lotutako elementuak txertatu behar direla argi dago, baina nola egin hori praktikan? Adibide modura: gehiegi sinplifikatzea izango al litzateke zera galdetzea, gauza bat emakume batek sortua izateak kultura-kontsumoan/praktikan nola eragiten duen? Dimentsio digitalari dagokionez, nola sakondu horretan? Azken galdera generikoa: parte-hartzea eragozten edo sustatzen duten faktoreei buruzko galderei eutsi egin beharko al genieke (ezabatu egin baitziren)?

Hurrengo koadroan, proposatutako galdera nagusien laburpena bildu dugu, eztabaidaren oinarria izan ziren aldetik.

---

Nola bazter ditzakegu galdera "tradizionalak" konparagarritasunari eutsiz?

Partaidetza motetan oinarritutako ikuspegia bat al dator egungo praktikekin?

Gehitutako elementu berriek informazio baliagarria ematen al dute egungo kultura-praktikak ulertzeko eta azaltzeko?

Egungo kultura-ohiturak eta -praktikak azaltzeko lagungarri den beste aldagai soziodemografikorik hartu beharko al litzateke kontuan?

Nola landu ditzakegu arazo konplexuak, hala nola generoari dagozkion alderdiak?

Nola sakon dezakegu gehiago partaidetza digitalaren ezagutzan?

Parte-hartzea eragozten edo sustatzen duten faktoreei buruzko galderari eutsi egin beharko al genieke (ezabatu egin baitziren)?

---

## Eztabaida - Kultura-ohiturak eta -praktikak<sup>2</sup>

Xavier Finaren aurkezpenaren ondoren, parte-hartzaileei eman zitzaien hitza beren ikuspuntuak adieraz zitzaizkien. Jarraian, parte-hartzaileek esandakoaren erreproduzio kronologikoa baino gehiago, eztabaidan planteatutako ideia nagusien aurkezpen berregituratua aurkituko dugu, proposatutako galdera nagusien arabera taldekatuta. Kontuan izan behar dugu parte-hartzaileek, beren hitzaldietan, planteatutako galdera zehatzei buruz ez ezik, esparru orokorrari buruz ere hitz egin zutela.

### Elementu berriak txertatzea konparagarritasunari eutsiz.

- Galdera tradizionalen ordez, *praktika tradizionalak* daude. Baina, praktikak tradizionalak izanik ere, beste modu batera galdetu behar dira, garai modernoari jarraikiz.
- Konparagarritasuna bermatze aldera, *ainguratze-galderak* izatea beharrezkoa da, gutxi gorabehera berdintsu izaten jarraituko dutenak, eta, aldi berean, elementu berriak txertatu dira, bizimoduaren eta gizartearen garapen berrien arabera. Galdera tradizionalak dira konparagarritasunaren ardatz. Galdera tradizional horiei galdera berriak gehitu zaizkie, eta 10 urtean berri horiek ere tradizional bihurtu litezke.
- Galdera tradizionalak garrantzitsuak izan daitezke oraindik ere baina, aldi berean, gero eta baliagarritasun txikiagoa izan dezakete errealitatea osotasuntzat ulertzeko eta interpretatzeko. *Paradigma-aldaketa* gertatu da (Kuhn-ek deskribatutakoari jarraikiz), eta horren ondorioz, bidea aztertuz betarik dago, alde

<sup>2</sup> Kultura-ohiturei buruzko EBko azken Estatistika egiaztatzea Eurostat-en (2015).

batera utzi ezin diren aztarnaz beterik. Alabaina, gure jokabidea aldatu eta gauzak egiteko modu berriak garatu behar ditugu. Arazoetako bat zera da, oso zaila dela parte hartzeko modu berri guztiak (arteetan, ingurune digitalean eta abar) kategorizatzea eta etiketatzea, gainjarri egiten direlako eta kultura-ohitura berriak eta desberdinak sortzen direlako haien ondorioz. XX. mendean erabiltzen ziren kategoria eta etiketek jada ez dute balio.

- Parte hartzeko modu berriak ezin dira aztertu alderdi kuantitatiboetara soilik erreparatuta, lehen egiten zen moduan, parte hartzeko modu tradizionalagoekin lan egiten genuenean. Onartu beharra dago praktikak etiketatzeak praktika horiek ulertzea eragotz dezakeela, eta datu kuantitatiboek ez digutela irudi osoa ematen. Horren ordez, Piemonteko Osservatorioan *ikuspegi antropologikoago* batetik begiratzen hasi gara, pertsonak ardatz izanik. Ohiturak narrazio modura deskribatzen dira, bizitzaren historiaren zati izango balira bezala. Izan ere, Osservatorioaren hogeigarren urteurrena dela eta, antzerki-talde bati zera eskatu diogu, pertsonok nola jokatzen dugun agertzen duten narratibak sortzeko. Pertsonok kulturalki jokatzeke moduaren irudikapen hori lagungarri izan dakiguke adierazleak ondorioztatzeko, eta adierazle horiek populazio zabalago batean aplikatu ahal izango ditugu, gero. Ikuspegi antropologikoak, bai kuantitatiboak, bai kualitatiboak, batu egin behar dira alderdi narratibora soilik muga ez gaitzean, baizik eta ulermen sakon batetik abia gaitzen.
- Kultura-ohitura eta -aztura berriek narratiba berria dakarkigute, eta ikuspegi kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzeko premia adierazten dute, baita lotura natural bat ezartzeko premia ere, bai berrikuntzarekin (Especializazio Adimendunaren Estrategia/RIS3), bai eremu publikoarekin. EBri dagokionez, narratiba hori zeharkakoa da, baita lehentasun bat ere, Juncker Agendaren ildoari jarraikiz. *Eskualdeko dimentsioa* funtsezkoa da narratiba horretan, eta Eusko Jaurlaritza aitzindari da mezu horretan, Regional Initiative for Culture and Creativity/RICC sarearekin batera. Eusko Jaurlaritza liderkide da sarean.
- Ildo berari jarraikiz, *ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboan edo narratiboan osagarritasunari* dagokionez, pertsonen ohiturei buruz gaia asko ikas daitezke haien kontsumoari erreparatuta, sare sozialak nola erabiltzen dituzten ikusita eta sare sozialetatik lor dezakegun informazioa kontuan izanik. Esate baterako, Boekman fundazioak ikerketa-proiektu bat aipatu du Eindhoven inguruan; Holandako hiri bat da Eindhoven, sormen handikoa, eta ondoko herrietan kultura nola kontsumitzen den azaltzen du proiektuak. Informazio hori lortzeko, multimedia-datuak bildu eta aztertu zituzten. Datu horiek ez dira narratiboak, partzialak dira, baina informazio asko ematen digute. Pertsonak izan behar dute ardatz gero eta datu gehiagori zentzua emateko.
- *Espainiako beste eskualde batzuekin konparatzea*: KEBak beste eskualde batzuetan egindako inkestak aztertu izan ditu beti, eta konparagarritasuna ahalbidetzeko aldagaiak txertatu dira, bereziki, Espainiako Kultura Ministerioak egiten duen inkestan; ministerioak antzeko eragiketa bat egingo du, ziurrenik hemendik oso gutxira.
- Erresuma Batuan, parte-hartzeari buruzko inkesta oso luzea da (1.000 galdera baino gehiago ditu, kirol-jarduerak ere sartzen baitira), eta galdera berriak sartzea erronka da han ere. Horretarako, *jada egokiak ez diren/erabiltzen ez diren galderak baztertu egiten dira, edo jende gutxi egiten dituen jarduerari buruzkoak*. Horien ordez beste galdera batzuk sartzen dituzte, adibidez, arte modu berriei edo baliabide digitalei buruzkoak.

- Holandan, galdera berriak sartu baino lehen *eztabaida-taldeak* antolatzen dituzte. Landa-lana egin behar izaten da hautatutako talde homogeneoez haratago joateko (arrazazurikoak, erdi-goi mailako klasekoak) eta "kultura tradizionalaren ez-erabiltzaile"tzat jo ditzakegun pertsonak sartzeko. Galdera eta aldagai berriak txertatu aurretik, guk azaldu nahi dugun hori azaltzeko aldagai egokiak ote diren aztertu behar dugu. Gure galdera eta aldagaiak bertatik bertara probatzea, talde txikitik, biziki baliagarria da.
- Gaur egun, konpentsazio argia dago, bai EBN, bai estatuan, *kultura-ekosistemaren konplexutasunaren eta espezifikotasunaren irudikapen ahalik eta zehatzena* lortzeko (ekosistema bat sektore baten edo sektore-multzo baten ordez, kultura-produkzioaren eta sormen-produkzioaren arloen artean loturak sortzen dituzten atzeraelkadura-mekanismoak direla eta), eta agenda politikoan ere (ez soilik kultura-politiken agendan) garrantzia hartzen iristen da. Ikerketaren ikuspuntutik begiratuta, ona eta desiragarria da konplexutasuna eta espezifikotasunak ahalik eta xehetasun-maila handienarekin aztertzea. Alabaina, kultura-arloko adierazle eta estatistikei dagokienez, irudi lauso eta problematikoegia eman beharrean – horrelako irudi batek kultura-arlokoak ez diren politiken arduradunak gogogabetu egingo bailituzke adierazle horiekin serio lan egiteko–, hobeto izango litzateke tresna sorta bat zehaztea, erabilgarria eta sinplifikatua, ahalik eta modu zabalenean erabili eta ulertu daitekeena.

### Parte hartzeko moduetan oinarritutako ikuspegia

- Aldaketa azaltzeko, aldaketa gertatu den testuingurua azaldu behar da. Parte hartzeko lau moduen (hartzailea, sortzailea, digitala eta euskarazkoa) antolamendua *taldekatzea* dela esan daiteke, hau da, kultura-ohituretan izandako zenbait aldaketaren ex-post taldekatzea. Helburua baldin bada aldaketa nola gertatzen den ikustea, honela laburbildu genezake: kultura-praktika zer, noiz, nola eta zergatik gauzatzen ari den; eta, horri esker, produkzioaren eta kontsumoaren alderdiak aztertu ahal izango genituzke. Proposatutako parte hartzeko moduak gainjarri egiten dira eta horrek ez digu laguntzen aldaketa nola gertatzen den ulertzen. Adibidez, partaidetza digitalak inpaktua edo eragina du praktikaren nola eta noiz alderdietan, baina modu hartzaileak eta/edo sortzaileak ere biltzen ditu. Hori horrela izanik, *testuinguru bat eta prozesuaren azterketa* txertatu beharko lirateke. Hartara, aldaketaren azterketa horri esker, aldaketa bera gehiago aztertuko litzateke, parte hartzeko moduak baino gehiago, betiere ohituren eta praktiken taldekatzetzat hartuta.
- Gero eta indar handiagoa hartzen ari den parte hartzeko beste modu bat (partaidetza hartzailean edo sortzailean sartzeko ez dena, "laguntza emateko" parte-hartzea) *boluntarioritza*rekin loturik dago, hau da, kulturen boluntario moduan parte hartzearekin. Parte hartzeko modu hori berriki txertatu dute Holandako azterlanetan.
- *Partaidetzako hainbat maila* har daitezke kontuan, hartzaileen eta sortzaileen arteko bereizketa kualitatiboa soilik egin gabe. Dimentsio digitalarekin ere badu zerikusirik, dimentsio horretan parte-hartze mailak askotarikoak izan baitaitezke: parte hartzeko modu tradizionalak ingurune digitalean erreproduzitu daitezke, edo partaidetza modu zeharo berriak sor daitezke, aurrerago azaldu dugunez.
- *Partaidetza mota guztiei balio bera ematea* erabaki al dugu eta, beraz, ez al zaizkigu interesatzen, esaterako, sarbideei buruzko galderak, betiere parte-hartzea merkaturatzeko bide bat, gizarteratzeko modu bat eta

abar baldin bada? Kultura-politikaren ikuspegitik begiratuta, parte-hartze mota guztiei begiratu neutroa egiten al diegu?

- Parte-hartze guztiek ez dute balio berdina, baina bada arazo politiko bat: kultura-politikak lehengo mendean egituratu eta eratu ziren, eta finkatuta daude. Baina geure lana zera da, *datozen urteotan zeri egin beharko diogun aurre ulertzea*, aldeztatik garrantzitsua ote den epaitu gabe (gure aurrean dugun panorama ulertu behar dugu). Orduan, posible al da datuak Bilborako soilik izatea, adibidez? Datu horiek [Europako Kultur eta Sormen Hirien Behatokia](#) (CCCM) azterlanaren hurrengo edizioan txerta litezke, mota horretako bi adierazle zerrendatzen baitira bertan: museoetako bisitariak eta saldutako zinema-txartelen kopurua.
- Bai, zuzena da, parte hartzeko moduak gainjarri egiten dira eta nolabaiteko anbiguotasuna dago definizioan. Alabaina, gero eta adostasun-maila handiagoa dagoenez ideia honi dagokionez: *kulturako parte-hartzea kultura-arlokoak ez diren sektore askotako "gurutzatzeen" eta soberakinen iturri garrantzitsua da*, anbiguotasun horiek gain-problematizatzen badira, gero eta aukera gutxiago dago kultura-arloko parte-hartzea politiken funtsezko adierazle bihurtzeko, politiken testuinguru zabalago baten barruan. Horrela bada, hobe da estandar bat ezartzea, kontzeptua egoki definituko duena baina partaidetza hartzailea eta sortzailea argi eta garbi bereiziko dituen.

### Aldagai soziodemografikoak

- Hiriaren ikuspegia txertatzea interesgarria izan liteke, kontuan izanik hiriek kultura-estrategietan betetzen duten eginkizuna. Europako Kultur eta Sormen Hirien Behatokian (CCCM), adibidez, hiriaren ikuspegia da ardatza: monitorizatzeko eta konparaziozko ebaluazioa egiteko tresna berri bat da, Europako 168 hiriren jardura neurtzen duena 29 adierazleren bitartez, eta kultura-arloko parte-hartzearen hainbat adierazle ere biltzen ditu (esate baterako, museoak izaten dituen bisitarien kopurua eta saldutako zinema-txartelen kopurua). Konparazio adierazgarriak egite aldera, CCCMak hainbat hiri mota bereizten ditu populazioaren tamainaren, diru-sarreraren eta enplegu-tasaren arabera. Dena den, landatar-hiritar erlazioa konplikatu da Euskal Herrian, lurraldea txikia izaki, landa-eremu gehienak hiriguneetan txertatuta daudelako.
- Lurraldearen edo eskualdearen dimentsioak erantzun integralak eskaini diezazkiguke. Hirien dimentsioa, bere kabuz, baliteke nahikoa ez izatea benetako irudi bat emateko; hortaz, dimentsio hori ez da hain estrategikoa, ezta hain jasangarria ere. EBk dimentsioa zabaltzeko premia du, eta EBko Behatokia lagungarri izan dakiguke, beste hainbat proiektuekin batera, hala nola Eusko Jaurlaritza aitzindari duen CREADIS<sub>3</sub> proiektua, edo Europako Kultura Hiriburuen proiektua, lurraldearekin gehiago lotutako dimentsioa duena.
- Aldagai soziodemografikoez gain, beste batzuk ere txerta litezke; hain zuzen ere, *aisialdi-kontsumoaren espektro zabalagoa* biltzen duten aldagaiak, antza, kultura beste kontsumo mota batzuekin lehian dago eta. Ekonomiaren aldetik zailak izan diren garaietan ere, pertsonak kultura-arlokoak ez diren aisialdiko beste modu batzuetan inberti dezakete. Kultura-sektorearen beraren barruan, eragileak elkarren artean lehian

dabiltzalako ustea dago, edo kultura-sektoreen arteko lehia dagoelako ustea, baina, benetan, lehia kultura-sektorearen eta beste sektore batzuen artean dago.

- *Kultura-arloko parte-hartzea aisialdiaren esparruan txertatzen da, modu murriztailean.* Eguneroko bizimoduaren sarearekin gero eta lotura handiagoa du, geure eduki propioa inolako eragozpenik gabe produzitzen eta banatzen baitugu, esaterako, sare sozialen bitartez. Garrantzitsua da aurreko hori kontuan izatea kulturaren eta beste eremu batzuen –hala nola, osasunaren, gizarte-kohesioaren edo berrikuntzaren eremuen– arteko "gurutzatzeaz" ari garenean.
- *Osasunarekin edo desgaitasunekin lotutako aldagaiak* txerta daitezke (kulturarako sarbideari dagokionez). Halaber, irisgarritasunarekin lotutako alderdiak ere txerta litezke, *ibilgailu bat izatea*, kasu. Osasuna aipatzea pentsatu zen, halaber, kulturaren parte hartzeak osasun-egoeran izan zezakeen inpaktu potentzialarekin lotuta. Izan ere, osasuna irisgarritasun-faktoretzat har liteke, baina baita kulturarako sarbidearen eta kultura-arloko parte-hartzearen onuraz baliatzen den faktoretzat ere, bereziki, ongizate mentala, [\*Cultural Access and Mental Health: an Exploratory Study\*](#) azterlanean adierazi denez.
- "Ibilgailuaren propietatea", esaterako, adierazle adimenduntzat har daiteke. Egia da faktore hori ez dela, esaterako, diru-sarreraren mailaren faktorea bezain egiturazkoa, baina profil posible bat eskaintzen digu eta kontsumo jakin batzuk edo kontsumo horien eza azal ditzake. Adierazle adimendunak gehiago aztertu eta garatu litezke.
- Agian ez inkesta honetan, parte-hartzea baitu ardatz, baina interesgarria izango litzateke "*ez-erabiltzaileen*" esferan sakontzea, batik bat, aurrekari etniko desberdineko pertsonen dagokienez,. Nola Holandan, hala Frantzia, kultura-politiken ikuspegia zera izaten da, holandar guztiei kultura-aukerak ematea. Ez soilik Holandan jaio eta hazi direnei, baizik eta baita orain holandar bihurtu direnei ere; eta ez soilik kultura-ahalmen handiko pertsonentzat, baizik eta baita interesik ez dutenentzat ere. Inkestatuen demografian alderdi horiek ere aintzat har litezke.

### Generoaren gaia.

- Generoaren gaia eta genero-kalitatearekiko lotura egiaztatu egin beharko lirateke, hala kuantitatiboki nola kualitatiboki. Esaterako, *emakumeen presentzia zuzendaritza postuetan* egiazta liteke, betiere euskal lurraldeetako kultura-egiturei dagokienez, edo kulturaren edo artearen ingurunean duten *ordezkaritza*, soilik emakumeen eta gizonen partaidetza-indizeak eskuratu beharrean.
- Orain arte, KEBaren planteamendua tradizional samarra izan da: emakumeen presentzia kuantitatiboki neurtzea (adibidez, partaidetza-indizeak). Orain, erroka planteamendu tradizional hori gainditzea da, eta *presentzia horrek zer adierazten edo esan nahi duen* azaltzen lagunduko duten aldagaiak txertatzea. Kultura-ohitura eta -praktikei buruzko Estatistikatik aterako den informazioa kontrastatu egin beharko da kualitatiboki. KEBa eredu bat osatzen ari da orain, horretarako, eta urte gutxi barru finkatuta egongo da.
- Europan, *generoaren gaia gehiago garatzen duten azterlanak* egin dira (adibidez, kulturarako sarbidea edo genero-berdintasuna sektore oso zehatzetan) eta oso interesgarriak dira testuinguruaren azterketaren

osagarri, baina hori dira, hau da, osagarriak; ez saio honetan eztabaidatzen ari dena bezalakoa, populazioari buruzko inkesta, alegia.

- Parte-hartzea baino are interesgarriagoak dira *genero-berdintasunaren alderdiak*: emakumeen posizioa zein den, batik bat, gizonen posizioarekin alderatuta. Eta, horren gainetik, ez soilik zein postu betetzen dituzten, baizik eta baita zenbat diru ordaintzen zaien ere (generoak eragindako soldata-arrailarekin lotuta dago). Arazo kuantitatibo horiek emakumeen posizioa zein den ulertzen laguntzen digute, eta generoaren gaia termino espezifikoetan lantzen hasteko aukera ematen digute. Esate baterako, partaidetza sortzaileari dagokionez, honako galdera hau egin geniezaioke geure buruari: Emakume batek film bat egiten duenean, zuzendari izanik, zenbat diru irabazten du? Europan bikain egin izan da hori zinemaren sektorean<sup>3</sup>, baina informazio hori falta da beste industria batzuei dagokienez, eta Euskal Herria aitzindari izan liteke zentzu horretan.
- Emakumeak lehenak dira beti kultura-kontsumoan (antzokiak, museoak eta abar), eta hori agian azaldu egin behar da. Salbuespen modura, gizonen parte-hartzea handiagoa da jazz jardueretan. Italian, bederen, ziurrenik hori kultura-faktoreekin loturik dago (emakumeak parte-hartzaileagoak izan daitezkeen hezten dira), baina nolahi ere aztertu beharreko zerbait da hori; ez soilik gizonen eta emakumeen desoreka partaidetza-indizeetan, baizik eta hori eragiten duten faktoreak ere bai.
- Erresuma Batuan, parte-hartzea orekatu samarra da, generoari dagokionez, zenbait esparrutan, hala nola museo eta galeriak bisitatzea. Agian horrek zera adierazten du, parte-hartzea askotan taldean egiten dela (adibidez, bikotekidearekin edo familian) eta parte-hartze hori, definizioz, orekatuagoa izango da bi sexuen artean. Parte-hartzean eragiteko politikak formulatzeari dagokionez, taldeko parte-hartzearen baldintzatzaileak ziurrenik ez dira banakako parte-hartzearen berdina izango.
- Emakumeek kultura-arloko partaidetzan gizonen baino interes handiagoa izatearen gaia modu sistematikoagoan landu beharko litzateke, *parte-hartzearen motibazioari eta kultura-esperientziari* buruzko inkesten bitartez. Parte-hartzearen genero-dimentsioari buruzko gako-ideiak lor litezke horrela.

### Partaidetza digitala

- Parte hartzeko moduak gainjartzen direlako ideiarekin jarraituz, 2. blokearen barruan (partaidetza hartzailea), zenbait praktikak dimentsio digitala biltzen dute (esate baterako, bideojokoak, liburuak, katalogoa online duten liburutegiak edo komunikabideak). Hortaz, gaia zeharkakoa da, eta *partaidetza digitalarentzat beste bloke bat izatea agian ez da egokiena*. Adibidez, Italian eguneroko bizimoduari buruz egindako inkesta bateko datuak aztertzean, kultura-arloko parte-hartzearen eta konpromiso zibikoaren arteko erlazioa aztertzeko, hipotesia honako hau zen: arteetako eta kulturako parte-hartzea zenbat eta erakargarriagoa izan, orduan eta jende gehiagok parte hartuko du bertan. Baina arazo bat izan zuten: jarduera erakargarri "gehiago" identifikatzeko zailtasunak izan zituzten, parte-hartzea ez zegoenez

<sup>3</sup> Zinemagintzaren azpisektorearen adibide bat ikuste aldera, honako lan hau kontsulta daiteke: Raveney (2017) "Changes in the film (and the audiovisual) sector(s) re. gender equality from 2012 to date and their possible impact on greater inclusion of gender equality within the Compendium on Cultural Policies".

kalifikatuta (esaterako, inkestan galdetu zen museoetara joan ote zen jendea, eta, modu orokorragoan, Internet kultura-helburuetarako erabili ote duten). Askoz interesgarriagoa izango litzateke kontsumitzeko moduari buruzko galderak egitea hainbat esparrutan (arteak, antzerkia, filmak eta abar). Eta, hartara, ikertzaileek eta arduradun politikoez ere kulturaren parte hartzeko modu guztiak eta beste aldagai sozioekonomiko batzuk (konpromiso zibikoa, ongizatea eta abar) hobeto aztertu ahal izango litzateke.

- Era berean, partaidetza digitala beste kategoria bereizi bat dela pentsatzea desegokia izan daiteke. *Sarbide digitala kanal bat, bide bat baino ez da*, baina ez du esan nahi partaidetza hartzailearen eta sortzailearen kontrako parte hartzeko modua denik.
- Gailu elektronikoek eta mugikorrek *kultura-ohiturak, erabilera eta sarbidea aldatu dituzte, funtsean*: adibide egokia izan daiteke eskaeraren araberrako kontsumoa (harpidetzen bitartez, adibidez, serieetako kapituluak ikusteko). Halaber, liburuak eta liburutegiak online ere badira eskura, behar izan ahala, baita Interneteko prentsa eta komunikabideak, oro har, ere.
- Musikan, bideojokoetan eta abarretan gailu elektronikoak erabiltzen ote diren jakitea oso garrantzitsua da, horrek kontsumoan ez ezik, sorkuntzan ere eragiten duelako. Baina, halaber, interesgarria da gauza gehiago jakitea Interneten erabilera orokorrari buruz, bi arlo zehatzei dagokienez: alde batetik, *Interneten erabileraren dimentsio soziologikoa*, eta, bestetik, jendeak kultura-praktikei buruz nola ikasten duen Internet bidez, edo, bestela esateko, *"route to market"* (merkaturako ibilbidea).
- Digitalizazioa kultura-praktika guztiak aldatzen ari da. Alabaina, kultura-arloko azpisektore jakin batzuetan –ondarearen kasuan, esaterako– tresna digitalak *formatu tradizionalak itzultzeko* erabiltzen dira oraindik ere, *zerbait erabat berria asmatzeko aukeratzat baino gehiago*. Litekeena da etorkizun hurbilean gertatzea azkena aipatu dugun hori, eta kultura-arloko produktu eta ondasunen agertokia aldatu egingo da.
- Aldaketa digitalak *partaidetza hartzailearen eta sortzailearen moduak* aldatzen ditu eta berriak garatu. Parte hartzeko modu berri horiek ulertu egin behar dira: Zer nolako inpaktua du dimentsio digitalak partaidetza sortzailean, esaterako? Pertsonen sare sozialetan duten interakzioak elementu berriak eskaintzen dizkio partaidetza sortzaileari.
- Ikuspegi epistemologikotik begiratuta, *partaidetza fisikoaren eta digitalaren arteko erabateko integrazioaren* puntuan al gaude? Esate baterako, norbaiti honako hau galdetzen badiogu: "Museoren batean izan al zara azkenaldian?", honako hau erantzungo al luke: "Bai, Louvre museoa bisitatu dut", baldin eta ez bada Parisera joan baina museoaren webgunean sartu bada? Egia da integrazio horren aldeko joera dagoela, baina puntu horretaraino iritsi al gara jada? Nola jokatu, praktikan, joerarekin eta errealitatearekin? Alabaina, baliteke kontua ez izatea prest egon ala ez egon. Baliteke kontua izatea jendeak zer egiten duen eta kultura nola eskuratzen duten. Horrela baino ez dugu lortuko gertatzen ari dena ez ezik, hori guztia pertsonengan eta gizartean izaten ari den eragina ere ulertzea eta, agian, kalifikatzea.
- Digitalizazioari dagokionez, errealitate birtualaren eremuko garapenak oso garrantzitsuak izango dira kultura-sektorerako, baina oraindik ez gara horraino heldu. Kalitatea ez da behar bezain ona, oraingoz. Louvre-ko adibidearekin jarraituz, etorkizunean, ziurrenik, Louvre museoa bisitatu ahal izango dugu



Parisera joan gabe: *kontsumitzaileen eta parte-hartzaileen esperientziarekin zerikusi handiagoa izango du gailuekiko interakzioarekin baino.*

- Ikertzaile garen aldetik, digitalizazioaren garrantziari buruz eztabaidatu behar dugu, eta norantz doan ikusi. Gaur egun, kontsumoaren zati bat baino ez da, baina dimentsio digitala gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da. Laster, azterlanetan alderdi hori kontuan izan beharko da eta ingurune digitaletako kontsumoa *parte-hartze fisikoa bezain serioztat* hartu beharko da.
- *Adimen artifiziala* ere sortzen ari da sorkuntza artistikoaren esparruan, eta horrek arazoak eragiten ditu egileari, egile-eskubideei eta abarri dagokienez.
- Osagai digitalari esker, museo jakin batean aurkituko duenari buruzko ideia bat izan dezake jendeak, museora bertara joan aurretik, esate baterako. Horren ondorioz, merkatua aldatzen ari da eta izen onaren, osparen gaia (hau da, ni Louvre museora joango naiz badakidalako han maisulanak daudela eta "must" bat dela, "nahitaez bisitatu beharrekoa") ez da hain funtsezkoa.
- Parte-hartzearen ikuspegitik begiratuta, *interakzioa* ez litzateke ulertuko erabiltzailearen eta produktorearen arteko erlaziotzat. Hori funtsezkoa izango litzateke ekonomia digitalerako, aukera berrietarako eta produktu eta zerbitzu berriak –kultura-arlokoak barnean hartuta– sortzeko. Ildo beretik, etorkizun hurbileko ikuspegian lana berrantolatu egin beharko da kultura-produktuen produkzioari dagokionez, eta automatizazioak edo baita robotizazioak ere eragina izango dute azkenean interakzio moduetan, bai produktoreentzat, bai erabiltzaileentzat.
- *Azpiegituretarako sarbidea* oso garrantzitsua da, mundu guztiak ez baitu eskura Interneteko banda zabaleko konexiorik
- *Ingelesaren oinarriko ezagutza eta Internet erabiltzea* lotuta daude. Ingeles-mailari buruzko aldagai soziodemografiko bat txerta liteke.
- Interesgarria izango litzateke zera egiaztatzea, *hizkuntzaren erabilera eta hizkuntza-arraila aldatu egiten ote diren gailu digitaletan.*

### Azalpen-dimentsioa eta parte hartzeko oztopoak/pizgarriak

- *Kultura-instalazioetarako irisgarritasunari* buruzko galderak sartu beharko lirateke, edo daudenei eutsi (adibidez: joan-etorriak egiteko denbora). Irisgarritasuna distantziarekin ez ezik, denborarekin ere lotuta ulertu behar da. Batik bat, Espainiako estatuan, kultura-instalazioak fisikoki hurbiltzeko politikak sortu dira, baina joan-etorrietarako denbora murriztea interesgarria izango litzateke, betiere garraio publikoaren politiken bitartez. Mugikortasunari buruzko datuak (edo proxy-ak) garraio publikoei buruzko informazioa duten iturri publikoetatik atera al litezke? Ala datu sateliteetatik? Datu horiek inkestakoak baino zehatzagoak izan litezke, eta inkestatik ezabatuz gero, inkesta bera laburragoa izan liteke.

- Parte-hartzean eragina izan dezaketen *finantza-alderdiak* ere kontuan izan beharko lirateke inkestan. Zenbait pertsonarentzat prezioa oso garrantzitsua da. Baliteke faktore gehiago ere izatea, interesik eza, esaterako. Hori garrantzitsua da, interesak bultzatzen baitu jendea dirua zerbaitetan gastatzera (pentsa zein den futbol-partida baten prezioa!). Noski, interesik ezak ikerketa bat eta estrategia kualitatibo osagarriak eskatzen ditu erabat ulertu eta aurre egin ahal izateko.
- *Kultura-azpiegiturekiko distantziari* dagokionez, egia al da dena gertu dagoela eta guztiontzako irisgarria dela euskal lurraldean? Berriro egiaztatu beharko litzateke hori, parte-hartzean eragina duen alderdi garrantzitsua izaten baita askotan.
- Jarrera bitxia partekatzen dugu; izan ere, beti kanpora begira ari gara, ekonomian, gizartean... eta kultura-gaien azalpenak ere bilatzen ditugu bertan. Kulturak gizartean eta kulturaren duen inpaktuari buruz ikastea oso gogoko dugu, baina oso gauza gutxi dakigu kultura-jarduerek kulturaren duen inpaktuari buruz. Zentzu berean, kultura-ondasunekiko kultura-irisgarritasunaren alderdiak eta kultura-kontsumoa aztertzen ditugu, baina ez dugu hainbeste aztertzen zeintzuk diren *kultura kontsumitzeko kultura-oztopoak*, aberatsak nahiz maila soziodemografiko desberdinetako pertsonak eraginpean har ditzaketenak. Kultura-eragile garen aldetik, gure aukeraketan eragiten dute oztopo horiek, eta oso garrantzitsuak dira gure kultura-ohiturak azaltzeko. Kultura-oztopoei, kultura-tresnei eta kulturarako sarbideari erreparatu beharko genieke, funtsezko alderdiak baitira hainbat kontsumo mota zergatik ari diren hazten eta beste zenbait zergatik ari diren murrizten eta abar azaltzeko.
- *Zenbait espazio kultura-klasearekin lotzen dira imaginarioan; beste espazio batzuk, aldiz, guztiontzako espaziotzat jotzen dira.* Horrek azaltzen du zergatik, zenbait hiri edo herritan, masak opereta-emanaldietara joaten diren, adibidez, plazetan, baina zergatik ez diren antzokietan sartzen. Espazioen eta edukien kontua da (plazetako eskaintza herrikoiagoa zen), eta aztergai interesgarria da, nahiz eta inkesta honetan egin ezin izango den.
- Aurreko puntuak oinarrizko galderak planteatzen ditu kultura-politikei dagokienez. Sarbidea demokratizatzeko politiketan, oztopo nagusiak prezioa eta distantzia zirela uste izan da. Alabaina, beren burua parte hartzera gonbidatuta sentitzen ez dutenek ez dute parte hartuko nahiz eta kultura-azpiegitura baten ondoan bizi eta parte-hartzea doan izan. Horrenbestez, beste zer aldagai har daiteke kontuan? Horixe da KEBak inkestan txertatu nahi duena *azalpen-dimentsio* berriarekin. Hainbat gauza susmatzen dira (hautzaroen izandako kultura-ingurunea, heziketa eta abar), baina beste zer alderdi azter litezke?
- *Orain, ikuspegi zabalagoa izateko joera dugu, kultura-arloko parte-hartzea eta kontsumoa epaitu gabe.* Kontzeptuari dagokion "eskuzabaltasun" horren atzean baliteke hainbat desparekotasun ezkutatzeara: agian jendeari modu jakin batean parte hartzea/kontsumitzea gustatzen zaiola onartzen ari gara, baina ez dugu planteatu ere egiten, kritikoki, agian ez dutela aukerarik izan beste modu batean parte hartzeko/kontsumitzeko. Galdera hori planteatu egin behar da, eta agian kultura-politikek ere erreakzionatu egin beharko dute zentzu horretan.
- Kultura-arloko parte-hartzeari buruzko EBko azken inkestan –[\*Culture statistics - frequency and obstacles in participation\*](#) (Kultura-estatistikak –parte hartzeko maiztasuna eta oztopoak–), *interesik eza* nabarmendu zen kulturaren parte hartzeko eragozpen nagusitzat, diru-faltaren gainetik. Interes-falta horren arrazoiak

zeintzuk diren jakitea garrantzitsua da, baita jendearentzat beste zer jarduera diren interesgarriak jakitea ere.

Finantza-arloko arrazoiak ez ziren nagusi izan; izan ere, zinemara edo zuzeneko emanaldi batera joan ez zirenen bosten batek baino gutxiagok aipatu baitzituzten, eta kultura-tokietara joan ez zirenen seiren batek baino gutxiagok. Parte hartu ez zuten gehienek interesik eza eta "bestelako arrazoiak" argudiatu zituzten kultura-jardueretan parte hartzeko oztopo nagusitzat. "Bestelako arrazoiak" izan daitezke, esaterako, denborarik ez izatea, familia-erantzukizunak edo kultura-edukiak eskuratzeko beste bide batzuk izatea (TB, DVD, streaming-a eta abar) (Eurostat, 2017).

- Kultura eurei ez dagokien zerbait dela sentitzen dutelako kulturaren parte hartzen ez dutenak ardatz hartzea funtsezkoa da. Eta kulturari buruzko egungo inkestetan ez da alderdi hori aztertzen. Kontua da oso gauza gutxi dakigula parte-hartzerik ezaren arrazoiei buruz. "Interesik eza" arrazoi baina, sintoma da. Parte hartzen ez duten pertsonen bideratutako berariazko inkesta bat ere egin liteke. Oztopo hori gainditzen ez bada, etorkizunean kultura-politiken gizarte-babesak gero eta arrisku handiagoa izango du. Aldi berean, benetan kontua ez da publikoaren garapena (kontzeptu paternalista da hori, aurreuposatzen baitu guk badakigula zer den pertsona horientzat egokiena, haiek baino hobeto). Aitzitik, ahalduntzea da kontua: pertsonen trebetasunak eta esperientzia eskaintzea erabaki informatua hartzeko, zer gustatzen zaien eta zer egiten jarraitzeko interesa izan dezaketen hobeto ulertzeko, partaidetza aktiboaren eta sortzailearen terminoetan ere.
- *Kultura-aukerak eskuratzeko epe luzeko motibazioa eratzten* partaidetza sortzaileak nola funtzionatzen duen hobeto ulertu behar dugu. Baina askoz zailagoa da partaidetza sortzailea sailkatzea, partaidetza hartzailea baino eta, protokolo argirik ez dagoenez, zaila izaten da estatistika-proba erabilgarriak biltzea. Gai horrek funtsezko esperientziazioa eta ikerketa eskatzen du, berriro ere. Halaber, parte-hartzearen dimentsio sortzailearen eta dimentsio sozialaren artean interakzio handia dagoela ere badakigu. Zer moduz moldatzen gara dimentsio bakoitzaren ekarpenak bereizten hautemateari, konpromisoari, ongizateari eta abarri dagokienez? Oraingoz, ez oso ongi.
- Italian azterlan asko egin dituzte *herritarren kultura-mailari* buruz. Italiako Kultura Ministerioaren arabera, italiarren % 75 ez da gai egunkari bateko orrialde bat ulertzeko (irakur dezakete, baina ezin dute erabat ulertu eta, are gutxiago, laburpen bat egin). Hori horrela baldin bada, ziur al gaude arazoa publikoaren garapena dena? Zeren partaidetza handitzen ari baita eta, benetan, % 75 horren zati bat parte hartzen ari da. Baina oinarrizko tresnak behar dira hainbat kultura-adierazpenetan sarbidea izateko.
- Italian, azterketa zientifikoaren arabera (Antonuccik egindakoetan, esaterako), museoetako bisitarien museoan izandako esperientziari buruz galdetzen zieten eta bisitari askok egiaz beste museo batzuetan zeuden obrak aipatzen zituzten. Ikusten dugunak gutariko bakoitzak duen ezagutza-sarearekin elkarreragiten du, eta ezagutza-sare hori gure iraganeko esperientziaren emaitza da. Anekdotaz haratago, horrek zera adierazten du, oso gauza gutxi dakigula ezagutzaren funtzionamenduari buruz eta zeintzuk diren oztopoak eta oinarrizko tresna kognitiboak. Horregatik, Turin hiriak EYCH 2018 egitasmoari ekarpena egitea erabaki du, eta, horretarako, ondarrerako sarbideari buruzko hausnarketa bat egin du: Herritarrek nola izaten dute ondarrerako sarbidea? Zeintzuk dira oztopoak: kultura-arlokoak, fisikoak, sozialak, heziketa-arlokoak eta abar?

- Irisgarritasun-arazoei dagokienez, *kultura-esperientzien kostu kognitiboak* txertatu beharko lirateke, eta ez soilik irisgarritasun fisikoa, joan-etorrietako distantzia edo finantza-eragozpenak. Eragozpen kognitiboek ere argi eta garbi elkarreragiten dute motibazio-dimentsioekin (ikus goian). Kostu kognitiboen eta finantzarioen artean konpentsazioen bat egotea ere gerta daiteke, hein batean. Eta, noski, zenbait kategoria sozialek kidetasun-sentimendurik ez izatearen arazoarekin lotuta ere badago. Zeintzuk dira kategoria sozial horien oinarrizko gabeziak, kultura-esperientzia ikuspuntu kognitibotik begiratuta askoz ere kostu handiagokoa izan dadin haientzat kulturen ohiko moduan parte hartzen dutenentzat baino? Ohiturei buruzko inkestetan modu askoz sistematiagoan landu beharko lukete dimentsio hori.
- Euskal Herrian, lehenagoko azterlanetan frogatua geratu da kultura-eskaintza areagotzeak ez dakarrela beti kontsumoa handitzea. Zenbait arlotan, gehiegizko programazioen eta koordinazioerik ezaren arazoa egon ere badago. CCCMaren ildoari jarraitzen dio, hein batean, horrek guztiak. Kultura-eskaintza ugaria izatea bisitari kopuru handiagoarekin lotzen da askotan, baina beti ez da horrela izaten. *Kultura-heziketa* formalarik dagokionez, atzerapen txiki bat dugu, baina aurrera goaz: Kultura gero eta gehiago estimatzen da eta, horren ondorioz, ziurrenik, kontsumitzaileen eta profesionalen belaunaldi berriak sortzen ari da. Gainera, eskala txikiagoko azterlanetan zera egiaztatu dute, *partaidetza sortzaileagoa* dakarten jarduerak direla etorkizuneko kontsumitzaile/parte-hartzaileak benetan prestatzen dituztenak. Esaterako, populazioaren arabera segmentatutako tailerrak dituzten jardueretan, jendeak gustuko duena eta gustuko ez duena bereiz ditzake, egin dezakeena eta egin ezin duena. Kultura-politikaren terminoetan, beraz, arlo guztietan guztiontzako eskaintza izan beharrean (eta hori ona da, betiere kudeatu eta koordinatzen ahal bada), interesgarria da ohiturak sorrarazten dituen eta sorrarazten ez dituen hori bereiztea. Azterlanen arabera, ohiturak askoz ere maizago sortzen dira sarbidea eta partaidetza sortzailea gaitzen badira (horixe da gazteekin egindako panelaren emaitzetako bat).
- Kultura-heziketaren gaineko inkestari garrantzi handiagoa eman behar zaio. Heziketaren aldagaiek kulturako parte-hartzearen duten eragina aztertzeko, [\*Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programa\*](#) (PISA) kontsultatu eta erabili daiteke, Euskal Herriko inkestaren informazioa osatze aldera.

## Bestelakoak

- Gure ondarearekin elkarreragiten dugun modua eta gure kultura-agenda publikoa euskal testuinguruaren berezitasun bat da. *Foro tradizional irekienekin hasi, interakzio kolektiboetatik, hirian, eta kulturaren eguneroko erabilerarekin bukatu*, etxean. Kultura-arloko parte-hartzearen azterketan jardura sozial eta kolektiboak ere sartu beharko lirateke, eta ez mugatu soilik esfera pribatura eta kultura-praktika tradizioletara (zinema, antzerkia eta abar).
- Ipar Euskal Herrian, ekitaldi handi eta txikiak antolatzen dituzte eta euskara ez dakien jendea ere joaten da ekitaldi horietara. *Ekitaldien dimentsio soziala* nabarmendu behar da.
- Kontuan izan beharreko beste aldagai bat *kultura-eskaintzaren nazioarteko dimentsioa* da: eskaintzen denetik zenbat datorren edo sortzen den Euskal Herrian, eta zenbat "inportatzen" den kanpotik, dela naziotik, dela nazioartetik; baita kultura-jardueretako parte-hartzaileen jatorria ere.

- Kultura-diplomazia funtsezko gako-alderdia da Euskadiren kasuan, EBko Agendaren ildoari jarraikiz. Puntu hori oso garrantzitsua da eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da, eta aldi berean EBren Kultura Lankidetzaren eta Kanpo Sustapeneko Estrategiarekin eta eskualdeko dimentsioarekin loturik dago.
- *Kultura-kontsumoan eta -praktikan euskararen presentzia* dela eta, duela 10 urte txertatu ziren adierazle horiek eta, orain, presentzia hori handiagoa den eremuei buruzko informazioa atera dezakegu, batik bat, lehen aipatu dugun ohituren panel horri esker. Gazteek eskura duten eskaintzatik –aisialdiko eskaintza barnean hartuta– aukera egiteko moduari buruzko informazioa eskaintzen du. Ideia zera da, datu horiek baliatu eta azterlan zentratuagoa egitea, ziurrenik kualitatiboa (eztabaida-taldeekin kontraste eginez), euskararen presentziari dagokionez, ohituren orekari edo desorekari buruz. Lan hori geroago egin beharko litzateke, Kultura-ohitura eta -praktikei buruzko Inkestaren ondoren.
- *Eleaniztasunaren eragina edo egitekoa kultura-ohituretan eta KSletan* funtsezkoa da (esate baterako, irakurtzen al da poesia euskaraz? Film laburrak gehienbat gaztelaniaz edo euskaraz ikusten dira? Netflix-ek euskarazko eskaintza handiagoa izango balu, negozio-aukera izango al litzateke zinema-industriarentzat?). Bestela esateko, hautatutako hizkuntzak kultura-kontsumoan nola eragiten duen adierazten duten edukiak txertatu beharko lirateke.
- Duela 40 urte aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen, digitalizazioaren aurretik: *kultura-praktikak dibertsifikatzea*. Jendearen kultura-interesak askotarikoagoak dira orain, baita egungo aisialdiko eskaintza ere. Publikoa ez da lehen bezain "leiala", eta, horren ondorioz, kultura-azpiegitura askok publikoaren zati bat galdu dute. Alderdi hori kontuan hartzeko modukoa da, eta, oztopo/pizgarrien kontua baino gehiago, testuinguruaren arazo bat da, inkestarako esparru bat.
- Inkestan, *jokabideari eta prozesuei buruzko alderdiak* sar litezke, bereziki, parte-hartzea alde aurretik planifikatzen bada (adibidez, sarrerak alde aurretik erosten al dira?), kontsumoa taldean egiten bada, taldean lidergo argia baldin badago, taldea hiriko espazioetan barrena ibiltzen bada eta abar. Hori profil soziodemografikoarekin loturik egon daiteke, baina baita edukiarekin ere, eta edukia testuinguruaren eta prozesuaren ikuspegitik begiratuta aztertzeko aukera emango liguke. Elementu horiek gazteekin egindako panelean txertatu dira. Baina zailagoa da inkestan txertatzea.
- *Kultura-arloko partaidetzak jokabidean dituen efektuak* askoz gehiago nabarmendu beharko genituzke, betiere kultura-estimuluen aurreko erantzun kognitiboei eta emozionalei dagokienez, eta horrek nola aldatuko litzuzkeen jendearen jarrera eta jokabideak kultura-arlokoak ez diren beste esfera batzuetan. Horixe da, alde handiarekin, kulturarentzat irudika dezakegun inpaktu motarik garrantzitsuena eta oparoena.

\*\*\*\*

Eztabaidaren ondorio gisa, Xavier Finak zera nabarmendu zuen, kultura-kontsumoaren eta -praktikaren errealitatea oso konplexua dela eta inkesta soil batera murriztu nahi izatea sinplifikazioa egitea izango dela beti. Saihestezina da bi sentsazioen artean nabigatzea: alde batetik, inkesta osatu gabea izateak eragiten duen atsekabearen eta, bestetik, dena jakin nahi izateko desiraren artean. Funtzionalak izan behar dugu,

baina hausnarketa zabalagoei uko egin gabe, hausnarketa horiek lagungarri izan baitakizkiguke errealitatea azalduko duten galdera hobek planteatzeko.

Eztabaida honetatik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- Beti hobetu daiteke, eta inkesta hau ez da salbuespena.
- Lehendik egindako beste azterlan batzuk lagungarri izan dakizkiguke gure ikuspegia osatzeko, eta gure asmoak ez luke izan behar gure azterketa auto-azalpenezkoa izatea.
- Elementu kualitatiboek lan hori osatzen lagunduko lukete.
- Datuak interpretatu egin behar dira, eta, horretarako, lurraldearen eta tokiko testuinguruaren ezagutzak ez ezik, kanpoko adituen ezagutzak ere behar-beharrezkoak dira. Prozesua ez da amaitzen datuak bildu eta ustiatuta, baizik eta hausnarketa handiagoa egin behar da hori baino lehen, bitartean eta horren ondoren.

Azkenik, beste erronka garrantzitsu bat: gure ikerketa-ibilbidea kultura-politiken paraleloan doa aurrera, hau da, ez dute bat egiten. Kultura-politikek ez gintuzkete mugatu behar, politikez haratago joan behar dugu; oreka bat aurkitzea ezinbestekoa da. Azken batean, beti izan beharko genuke bokazio bat, hain zuzen ere, politiken formulazioan eragiteko edo informatzeko bokazioa. Partaidetza askotariko eta konplexu bati buruz eztabaidan ari garen arren, kultura-politikak oso lotuta daude, oraindik ere, errotutako kultura-talde eta -azpiegitura handien finantzaketarekin. Zer egin daiteke ezagutza horiek politika publiko bihurtzeko?



## KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK

Sabin Goitia Goienetxea Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko KSlen aholkularia da, eta arratsaldeko saioan buru izan zen, Kultura eta Sormen Industriak (KSI) izan baitziren aztergai, eta, zehazkiago, Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren zabalkundea, Sormen Industriak ere txertatzearren. Aintzane Larrabeiti San Román andrea aurkeztu zuen; ICC Consultors aholkularitza-enpresako bazkide-aholkularia da eta 2006tik 2010era bitarte laguntza teknikoaren koordinatzailea izan zen KEBan.

### Eztabaidagaiak - Kultura eta Sormen Industriak

Eztabaidatu beharreko gai garrantzitsuenak aurkeztu zituztenean, Arteei eta Kultura eta Sormen Industriei buruzko Estatistika berriaren diseinuan jarraitu zituzten elementuak aurkeztu zituen Aintzane Larrabeitiki. Ez zuen zehatz-mehatz azaldu diseinu horren atzean dagoen kontzeptuen eta hausnarketako prozesu osoa, baizik eta prozesuan zalantza gehiago eragin zituzten arazoak izan zituen mintzagai nagusi.

Ikerketa berri hori KEBaren bi lan garrantzitsutan oinarritzen da<sup>4</sup>.

- Alde batetik, [Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika](#); 2009. urtean hasi zen estatistika-eragiketa garrantzitsu hori bi urtean behin egiten (2007tik aurrerako datuekin), eta hasieran, arte eszenikoan, ikusizko artean, ikus-entzunezko produkzioaren eta produkzio diskografikoaren produkzioa eta erakustaldia aztertu zuen. Estatistika-eragiketa hori arian-arian zabaldu egin zen eta azken edizioetan liburu eta diskoen merkaturia txertatu da, baita argialetxeen sektorea ere. Esparru horretan aurkeztuko dira, orain, sormen-industriak.
- Bestalde, KEBak beste datu-iturri batzuk ere erabiltzen ditu [enpresei, enpleguari eta lan-merkatuari](#) buruzko informazioa lortzeko. Horrela, bada, 2010. urteaz geroztik, KEBak Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) lortutako datuak aztertu izan ditu; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoen direktorioa eskaintzen du eta, hortik, kultura-industriekin lotutako jardueri buruzko informazioa ateratzen da eta, 2013-2014 aldiaz geroztik, baita sormen-industriei (arkitektura, diseinua eta abar) buruzko informazioa ere. Lan-eremuan, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuak aztertzen dira; enplegu-eskaerari eta urtero erregistratzen diren kontratuei buruzko informazioa ematen dute datu horiek. Azken txostenaren arabera, 2014. urtetik gora egin du KSlen sektoreko enpleguak, baita enpresen kopuruak ere.

Kontzeptu-esparru bat sortu zen, eta Arteei eta KSleiei buruzko Estatistikan oinarritzat ez ezik, KSIak kulturaren eremu tradizionalan eta kultura-politikan txertatzea hobeto eta modu kritikoan ulertzeko ere erabili zen. Horretarako, erreferentziako nazioarteko eredu nagusiak aztertu zituzten, konparagarritasuna ahalbidetze aldera, eta euskal testuinguruaren berezitasunak ere aintzat hartu zituzten. Azken horri dagokionez, hizkuntzaren industria ere txertatuko da, testuinguru horretan bereziki

<sup>4</sup> Euskadiko kultura- eta sormen-sektoreei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Sinergiak Social Innovation (2013 eta 2014), Echeverría (2017) eta KEBaren aurreko lanak

garrantzitsua delako eta azpisektore horretan sare aberats eta elkarkonektatua dagoelako. Beste berezitasun bat gastronomia da, euskal kulturaren eta sormenaren panoraman gastronomiak duen garrantzia.

KEBak berariazko kultura-arloko ikuspegitik begiratzen die KSle. KSI guztiek komunean dituzten hiru irizpide identifikatu dira: kultura-adierazpenak sortzen dituzte, osagai sinboliko bat dute, eta jabetza intelektualaren eskubideak sorrarazten dituzte. Horri jarraikiz, kultura-politika sektore tradizionalak txertatu dira: ondarea, arteak eta kultura-industriak. Sormenaren esparruan, arkitektura, bideojokoak, diseinua, publizitatea, moda, hizkuntzaren industria eta gastronomia ere sartu dira. Zalantzarik handiena zera izan zen, *eduki digitalekin* zer egin eta nola jokatu. Edukiaren ikuspegitik begirata, digitalizazioa azpisektore guzti-guztietan agertzen da hainbat mailatan: bideojokoen sektorean argi eta garbi, baina musikan edo ikus-entzunezkoen sektorean ere bai; horrenbestez, sektore tradizional askotan desmaterializazioa gertatzen ari da. Beraz, sektore digitala beste sektore bat dela pentsatuz gero, edukia ardatz hartuta, beste sektore batzuei eduki asko kenduko genizkieke, haientzat funtsezkoak diren edukiak. Ikuspegi operatiboago batetik begirata, sektore digitalean, kasu askotan, honako hauek sartzen dira: softwarearen garapena, aplikazio digitalak eta abar, hau da, IKTen sektorea, oro har. Horrela, zalantza bat sortu zen: Zergatik sartu beharko litzateke sektore digitala (ikuspegi operatiboago batetik begirata, betiere) eta ez beste sektore batzuk, nahiz eta beste horiek ere erabat osagarriak izan KSientzat (esaterako, telekomunikazioak)? Azkenean, eduki digitalak bereizitako azpisektoretzat ez hartzea erabaki zen.

Hemen eztabaidatu beharko litzatekeen gai nagusia honako hau da: Nola maneiatu behar dira eduki digitalak KSlen esparruan?

KSlen lan-esparrua zehaztu ostean, zeintzuk dira *txertatzeko eta kanporatzeko irizpideak*?

- Lehenik, *balio-kateari* dagokionez, alde batetik, artearen eta kulturaren industriak eta, bestetik, sormen-industriak bereizi dira. Lehenengo kasuan, balio-katearen eginkizunen sorta honako hauek osatzen dutela jotzen da: sorkuntza, produkzioa-edizioa, banaketa, merkataritza eta erakustaldiak, zaintzea, heziketa, kudeaketa eta erregulazioa. Alabaina, sormen-industriei dagokienez, sorkuntzari baino ez zaio erreparatu.
- Bigarrenik, *irizpide subjektiboan aplikazioari* dagokionez, balio-iritzi edo -judizioak ez zaizkie kultura-industriei aplikatzen. Horrek esan nahi du, adibidez, argitalpenen azpisektorea aztertzean, ez dugula aintzat hartzen argitaratzen den eduki mota: eduki guzti-guztiak sartzen dira. Hala ere, sormen-industriei balio-iritziak aplikatu behar zaizkie, zenbait kasutan. Esate baterako, gastronomian "goi-mailako sukaldaritza" aipatzen dugu eta, beraz, hor bai aplikatzen ditugu elementu subjektiboak. Dena den, elkarsubjektibotasuna eratzeko lanean ari gara, interesdunekin adostasun batera iritsita barne-eztabaidaren bitartez edo beste eragile batzuek egiten dutena ikusita.

Txertatzeko eta kanporatzeko irizpideei dagokienez, ikuspegi hori zentzuzkoa al da? Egin al daiteke?

Goian deskribatu dugun ikuspegiak (balio-kateari eta irizpide subjektiboak aplikatzeari dagokienez) arazoak eragiten ditu azpisektore zehatz batzuetan. Praktikan, modaren kasuan, ia ezinezkoa da sorkuntza eta produkzioa, banaketa edo merkataritza bereiztea. Funtsean sortzailea den alderdia jardueratik bereiztea oso zaila da. Halaber, altzarien diseinuaren kasuan, esaterako, enpresa gehienak fabrikatzaile ere badirenez, oso zaila da alderdi sortzailea balio-katearen gainerakotik bereiztea. Zentzu berean, honako



galdera hauek egin zitzaizkien saioan parte hartu zutenei: Nola konpon daitezke alderdi zehatz horiek? Zer konponbide proposatuko zenuketek zuek zuen inguruneetan berariazko sektore horietarako edo salbuespentzat har daitezkeen beste batzuetarako? Edo, orokorrago hartuta, zer egin daiteke diseinatutako ereduari ongi sartzen ez den horrekin?

Beste gai bati helduta, azterketaren xedea enpresak dira. Alabaina (bereziki sormen-industrien barruan eta baita kultura-industrien barruan ere, baina hein txikiagoan), *norbere konturako langile* asko daude. Hortaz, ikuspegi operatibo batetik begiratuta, ezinezkoa da eroldan erregistratutako eragile guztiengana jotzea. Izan ere, estatistika-eragiketa honetarako prestatutako jatorrizko eroldan % 30 baino ez dira enpresak. Zenbait kasutan, langile autonomoen tasa bereziki handia da: % 80 arkitekturan, % 65 diseinuan eta % 85 itzulpengintza eta interpretazioan (baita hizkuntzaren industrian ere).

Eragiketaren *edukiei* dagokienez, helburua zera da, biltzen den informazioa 2009. urtetik biltzen ari den informazioari gehitu ahal izatea. Horrela, bada, enpleguari buruzko informazioa sexuaren eta lanbide-profilaren arabera banakatuta bilduko da. Gainera, jarduera ekonomikoari buruzko datuak biltzea ere aurreikusitako da (fakturazioa, diru-sarrerak, gastuak eta abar). Ahalik eta informazio gutxien eskatzeko ahalegina egiten dugu (hau da, azterketa sakona egiteko aukera emango digun informazioa, baina gutxienezkoa), esperientziak irakatsi baitigu oso zaila dela enpresek erantzun dezaten lortzea. KEBak azpisektore bakoitzean funtsezkoak diren elkarrean ordezkariekin eta alde interesdunekin ere lan egin du, zer informazio mota izan nahiko luketen jakiteko, eta, orain, haiekin kontsultak egiten ari da zera adostu ahal izateko, gutxienezko zer informazio bildu behar den bakoitzak egiten duenaren deskribapen egokia lortu ahal izateko. Elkarriketa horren ondorioz, azpikontratazioari buruzko datuak ere sartu dira, lan egiten duten merkatuei buruzkoa eta bezero nagusien profilaria buruzkoa (erakundeak, sektore pribatuak eta abar), besteak beste. Era berean, galde-sorta berariazko azpisektore bakoitzerako egokitzen ari da.

Eta hemen bi galdera nagusi sortzen dira: Nola lan egin langile autonomoek osatutako enpresekin? Eta zer eduki mota txertatu beharko lirateke eragiketan?

Azkenik, hainbat galdera orokor:

- Nola landu banaketa kultura- eta sormen-industrietan? Oso desberdina da azpisektore guztietan. Adibidez, arte eszenikoaren kasuan, zenbait konpainiak antzerki-obra beste toki batzuetan banatzen dituzte, edo nazioarteko obra ekartzen dituzte euskal enpresek interpreta ditzaten. Argitaletxeen sektorean, bestalde, banaketa argitaratzaileen eta liburu-denden arteko lotura logistikotzat har daiteke. Azpisektore bakoitzean desberdina izateaz gain, banaketa gero eta esku gutxiagotan metatzeko joera dago. Horrenbestez, zenbait azpisektoretan oso enpresa gutxi daude banaketari buruzko galderak egiteko.
- Nola aztertu artisautza? Nola landu dezakegu artisautza ezin baldin badugu jarduera ekonomikoaren direktorioan oinarritutako eroldarik egin? Euskal Herrian, Foru Aldundi bakoitzak artisauen erregistroa du. Hori abiapuntua izan liteke baina, zalantzarik gabe, berezitasun garrantzitsuak dituen sektorea da.
- Nola landu irizpide subjektiboak aplikatzen zaizkien sektoreak, hala nola goi-mailako sukaldaritza? Zer irizpide aplikatu daitezke gastronomiaren sektorean enpresak txertatzeko/kanporatzeko? Gastronomiaren barruan, zer jarduera mota sartu beharko lirateke?

---

Zentzuzkoa eta egingarria al da kultura- eta sormen-industriari balio-katean oinarritutako ikuspegia eta irizpide desberdinak aplikatzea?

Zer egin eduki digitalekin?

Nola landu daitezke modaren eta diseinuaren sektoreetako berezitasunak?

Nola jokatu autonomoz osatutako enpresekin?

Zer eduki mota txertatu beharko litzateke azterketan?

Nola landu banaketa KSletan?

Nola aztertu artisautza motak?

Nola landu irizpide subjektiboak aplikatzen zaizkien sektoreak, hala nola goi-mailako sukaldaritza?

---

## Eztabaida - Kultura eta Sormen Industriak

Jarraian, eztabaidan planteatutako ideia nagusiak aurkeztuko ditugu, Aintzane Larrabeitik aurkezpenean egindako galdera nagusien arabera antolatuta. Azaldu zuenez, duela 10 urte ez ziren sormen-azpisektoreak sartu. KEBak baduenetz, jada, azpisektore horien irudi orokor bat (beste datu-iturri batzuen azterketari esker), egungo helburua zera da, ezagutza horiek zabaltzea hobeto ulertzeko enpleguari dagokionez, kultura-arloko azpisektoreekin zer nolako harremana duen eta abar. Definizio zehaztu horretan hainbat zalantza sortu dira. Alabaina, alderdi operazionaleri buruzko eztabaidak eztabaida kontzeptual handietara garamatza berriro. Argi ikusten da hori hemen aurkeztu dugun laburpenean; izan ere, ahalegin gehienak azpisektoreak definitu eta mugatzera bideratzen baitira, baita politikak formulatzearekin zer nolako lotura duten definitu eta mugatzera ere. Zenbait ideiak gai bat baino gehiago biltzen zituztenez, jarraian aurkeztuko dugun ideien aurkezpena aukera ugarietako bat dela ulertu behar da.

### **KSlak identifikatzea: Balio-katea eta aplikatutako irizpideak**

- Orkestrak (Deustuko Unibertsitatea) KSlari buruzko ikerlanak egin ditu eta *lehiakortasun ekonomikoa* hartu du ardatz, ez dira kultura-ikuspegi batetik begiratutako ikerketak izan. Zehazki, Gasteizen azterketa bat egin dute KSlak identifikatzeko, hirian dauden establezimenduen kopuruari eta enpleguari dagokienez, eta datu horiek EAEko beste bi hiriburuekin eta EAE osoarekin alderatu dituzte. Era berean, azalpen modura, hipotesi bat frogatu ere egin dute: ideia zera da, KSlak eta, bereziki, diseinuaren sektoreak –berezko balio-kateaz haratago– lurraldeko beste manufaktura-industria "gogor" batzuetan eragiten dutela. Horretarako, KSlak beren balio-kateaz haratago duten inpaktu ekonomikoa nola egiaztatu arakatzeko azterketa bat egin da.

- KSlel dagokienez, *definizio-arazo orokorra eta erreferentzia eta ulermen-esparru komunik ez izatearen arazo orokorra* dago Europa osoan<sup>5</sup>. Azterlanak zein ikuspegiatik begiratuta diseinatu diren arabera, definizioa aldatu egin daiteke. Esate baterako, inpaktu ekonomikoari erreparatzen dioten azterlanak inklusiboagoak izan ohi dira definizioan, zeren hori sektorearen sendotasuna adierazteko modu bat ere bai baita, beste sektore batzuen aldean.
- Erresuma Batuan, *sormen-industrien definizioa lan-merkatuko okupazioetan oinarrituta* egin da; okupazio jakin batzuk sormenezkotzat jotzen dira eta sormen-industriak dira sormen-langileen ehuneko handi bat baliatzen dutenak. Lan-merkatuan oinarritutako ikuspegiak zera adierazten du, giza talentuak zeregin nagusia betetzen duela sormen-jardueran. Ikuspegi hori sektore digitalari eta kultura-sektoreari ere aplikatu dakieke. [Nesta](#) erakundeak okupazioaren metodologia garatu du, lanean oinarrituta; [NACE](#) erakundeak, aldiz, sektoreetarako nazioarteko arauak, eta [ISCO](#) erakundeak okupazioak. Edukia ardatz duen definizioaren ikuspegia lortzea erronka itzela izango litzateke, sormen-jarduerak sortzen dituen produktu eta zerbitzuen aukera eta konplexutasuna handia delako eta ez dagoelako horien neurketa estandarizaturik. Dena den, ikuspuntu kontzeptual eta metodologiko batetik begiratuta, ikuspegi hori sendoagoa da sektoreetan oinarritutakoa baino. Ikuspuntu hori ezartzeko, eskualdeetako datuak behar bezain zehaztuak ote diren egiaztatu behar da, hau da, lanak eta sektoreak gurutzatzea ahalbidetzeko bezain beste.
- Erresuma Batuan, kultura-politikaren eta politika digitalaren eginkizunak departamentu beraren ardurapean daude. Horren arrazoa zera da, iraultza digitalak eginkizun oso garrantzitsua betetzen duela kultura-jardueraren hornidura-katearen zati handi batean (adibidez, efektu bisualak filmetan eta musika elektronikoa). Ezaugarri horri esker, KSlen definizio zabala egin daiteke.
- EKE Euskal Kultur Erakundeak *kultura-turismoari* buruzko proiektu bat egin dute, turismo-bulegoa inplikaturik, baita eduki digitalak ere. Kultura-turismoa ez da sektoretzat txertatu estatistika-eragiketa honetan, zeren, besteak beste, beste erakunde batzuek administratzen baitute, beste politika batzuekin eta, gainera, beste adierazle batzuk ere txertatu behar direlako, hala nola hotela, jatetxeak eta abar. Egia esateko, KSlekin lotura oso handia du, baina muga nonbait jarri behar da. Kultura-turismoa ez da aparteko sektoretzat jotzen, zeharkako sektoretzat baizik, estatistika-eragiketa honetan lantzen diren hainbat jardueraren eraginpean dagoen zeharkako sektoretzat (ikus-entzunezkoak [euskal lurraldeetako jaialdiak], ondarea eta abar).
- Holandan ere antzeko eztabaidak izaten ari dira. Kirola, turismoa, olgeta eta natura, besteak beste, alde batera utzi dira beste politika batzuetan lantzen direlako jada. KSlen definizioaren benetako ardatza kultura da, baina nolahi ere, zer sartu beharko litzatekeen eta zer ez erabakitzeko eztabaida oso konplexua izan zen. Azkenean, *ESSNet-en metodologia/jarraibideak* aplikatzea erabaki zuten, baina itzulpegiaren eta interpretazioaren azpisektorea alde batera utzita.

<sup>5</sup> Europako kultura- eta sormen-sektoreen balio-neurketari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Soendermann (2014). Europako Batzordearen kultura- eta sormen-sektoreei buruzko txosten garrantzitsuak aurki daitezke Europako Batzordean (2017 eta 2018), eta Austriako ETEak Ikertzeko Institutuan eta VVA Europen (2016).

- Holandan, arazo berdina izan zuten *produkzioaren eta banaketaren* sektorearekin. Hainbat kultura-produkturen fabrikazioa sartzea erabaki zuten, hala nola, musika-tresnak, baina beste produktu material batzuk ez zituzten sartu, kulturekin zerikusirik ez duten xedeetarako ere erabil daitezkeelako, hala nola argazkiak edo argazki-kamerak. Beste horrenbeste gertatzen da, esaterako, arte-pieza bat egiteko behar den pinturarekin. Alabaina, artelana sortuta dagoelarik, lotutako jarduera guztiak (merkataritza, banaketa eta abar) KSletan sartzen dira. Esparru hori anbigua eta oso konplexua da, hartzen den erabakia hartzen dela, beti aurki baitaiteke salbuespen bat. Gai horri berari buruz, Italiako [Fondazione Symbola](#) fundazioa ere definizioei buruzko ikerketa sakona egiten ari da Italiako Kultura Ministerioarentzat.
- Europako herrialde guztiek arazo berdinak izaten dituzte horrelako azterlanak diseinatzeko garaian, eta kasu bakoitzean konponbide desberdinak hartu dituzte. Horren ondorioz, KSlen esparruan nazioarteko konparazioak egitea oso zaila da, baldin eta ez bada *modulu bidezko egitura* bat ezartzea erabakitzen, kasu bakoitzean garrantzitsuak diren kodeekin (adibidez, herrialde batek gastronomia sartzea edo ez sartzea erabaki dezake, edo turismoa, Austriak egin zuen moduan, haien garrantzitsua delako, baina bereizitako modulu batean sartu zuten, konparazioak egiteko azterketa batean kentzeko aukera dago). Definizio europar komuna lortu beharko litzateke. EBA eta Eurostat horretan lanean ari dira oraindik, eta modulu bidezko konponbidea benetan baliagarria izan daiteke, bai konparagarritasuna bermatzeko, bai nazioko/eskualdeko bereizitasunak txertatzen direla bermatzeko. Eurostaten emaitzekin erabat konparagarriak diren emaitzak produzitu eta, gero, emaitzak geure definizio propioaren arabera azaltzeko gai izango bagina, erreferentzia-puntu interesgarria ezarri ahal izango genuke beste herrialde eta eskualdeentzat.
- Modulu bidezko ikuspegia da kultura-ohiturak aztertzeko egokiena, oinarrizko galderen nukleo bat (denborarekin galderak aldatu egin daitezke, baina nahiko mantso) eta testuingururako berriazko moduluak izanik. Gizarte-zientzietan ikuspegi konputazional berriak erabiltzen ari dira sare sozialetako edukia aztertzeko, eta ikuspegi horiek biziki eraginkorrak izan daitezke zentzu horretan, beste esparru batzuetan jada gertatzen ari denez.
- Bada beste arazo bat konparagarritasunari dagokionez: zaila da herrialde bakoitzeko estatistika-tradizioa aldatzea.
- Norbaitek bere buruari galde diezaioke zergatik sartu behar ditugun gauza horiek guztiak KSlen zakuan. Silvia Costa eurodiputatuak, esaterako, zintzoki azaldu zuen politiken kontua dela edo, hobeto esateko, kontu politikoa dela, *kultura termino ekonomikoetan haztatzeko* modu bat denez eta lehentasun handiagoko beste arlo batzuen –hala nola ekonomiaren– itzalpean geratu gabe. Helburua hori bada, orduan definizio komun bat lortu behar dugu erretorika onargarri bat izate aldera.
- Helburuak beste batzuk badira, orduan hainbat arazo konpondu beharko dira. Alde batetik, *ez dago politika bakarra sektorerako*. Sektore horretan politika desberdin asko egon daitezke (esaterako, liburutegiei zuzendutako politikak eta diseinuaren azpisektorekoak oso bestelakoak dira), eta azpisektore bakoitza osotasunean ulertu behar da.

- Kultura- eta sormen-sektoreak bat egiteko beste arrazoi bat zera da, prozesu kognitiboak partekatzen dituztela, eta sormena dela *berrikuntza kulturaren sektorera* eramateko bidea. Azken hori oso beharrezkoa da euskal testuinguruan, kulturaren sektoreak diru-laguntza asko jasotzen baititu.
- Geure buruari galdetu beharko genioke ea *politiketan eragiteko gaitasuna* edo eskumena benetan ba ote dugun, zeren definizioak aldatu egin baitaitezke horren arabera. Landa-laneko esperientzia interesgarri bat izan zen: [Europako Lankidetzaren Koordinatzeko Metodo Irekia](#) (OMC); KSIen sektorearekin lan egin zen esperientzia horretan, baina kultura-arduraduna ez zen emaitzak ezartzeko ardura zeukana eta, beraz, esperientzia disfuntzionala izan zen, azkenean. Garrantzitsua da adituen eta politiken ardura dutenen artean zuzeneko lotura ezartzea, arduradun politikoek politikak formulatzeko garaian ikerketaren emaitzak benetan babestuko dituztela ziurtatzeko.
- *Ez da sektore bat behar politika bat egiteko*. Industria-sektoreei erreparatuz gero, konturatuko gara politikek ez dietela beti definizioei jarraitzen: batzuetan jarraitzen diete eta beste batzuetan ez.
- Euskal testuinguruan, sormenari eta kulturari buruzko politikak lantzen dira. Baina sormen-industriak, askotan, sakabanatuta daude politikei dagokienez. Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia ez da kultura-ikuspegi peto-pettoa, baizik eta kultura eta sustapen ekonomikoa biltzen ditu, aldi berean. RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategien barruan, *kulturarentzat eta garapen ekonomikoarentzat politika komuna* garatzen ari da, ildo desberdinekin. Hainbat sormen-azpisektore kulturatik gertuago daude, beste batzuk garapen ekonomikotik hurbilago, baina helburua zera da, politikei dagokienez sakabanatuta dauden azpisektore horiei guztiei erantzun bat ematea. Kulturaren sektoreak baditu bere politika eta baliabideak, eta ideia ez da baliabide horiek hartu eta birbanatzea, oraingoan sormen-sektorea ere barnean hartuta. Helburua garapen ekonomikoarekin integratutako politika bat izatea da, eta eskumenak jada zehaztuta dituen politika bat lantzea. Sektoreen antolaketa hori are beharrezkoagoa da euskal testuinguruan, kultura-eskumenak oso sakabanatuta baitaude gobernu-maila guztietan.
- Halaber, *politikak badiren heinean, sektore bat izan bada*. Politikak formulatzeak, egiaz, ekintza-esparru bat mugatzen du. Kontua ez da sektoreak modu natural eta iraunkorrean existitzen direla, baizik eta sektoreen existentziaren osagai garrantzitsu bat begiratzen den leiarren arabera dela. Era berean, sektore baten autokontzientziak sektorea eratzen du, eta hori gertatzen da kultura- eta sormen-sektoreetan ez ezik, sektore ekonomiko guztietan ere. Laburbilduta, sektoreak erlatiboak dira, baina horrek ez du esan nahi koherentziarik ez dagoenik: logika bat dago horrentzat guztiarentzat, eta logika hori politikekin lotuta dago.
- Estatistika-eragiketa bi urtean behin errepikatzea aurreikusi da. *Sormen-azpisektoreak arian-arian txertatu daitezke* eta, nolahi ere, haien ikuspegia hobetu egingo da, ziur, edizio berri bakoitzean.
- Europan ere, *kultura sektore ekonomikotzat jotzen da orain*. Oraindik lan handia dago egiteke politikei dagokienez, baina hala ere, gaur egun, kultura sektore ekonomikotzat hartzeko kontzientzia-maila askoz handiagoa dago eta, horren ondorioz, artistak langiletzat jotzen dira, ez soilik artearekiko eta kulturarekiko pasioak bultzatzen dituen pertsonatzat.

- *Politikak kultura- eta sormen-sektoreetan* eragiten duten inpaktua sakonago ebaluatu beharko litzateke. Inpaktu hori zehaztasun handiagoz neur dadila nahi du ELGEk, antza, zalantzaragarria delako eta dirua ez delako beti ongi inbertitzen. Azken batean, diru publikoa da.
- Dena sektore batean sartuz gero, *arriku* bat dago: politikoei galde dezakete, adibidez, liburutegi bat zergatik ez den enpresa bat, haien negozio-ereduak zergatik ez duen funtzionatzen. Kultura- eta sormen-jarduera guztiak ez dira merkataritzako edo enpresako eruedetan oinarritzen. Horrek beldur apur bat ematen du, baina halaxe da. Elementu komunak daude, eta azpisektoreen arteko sinergia gehiago aurkitu eta sustatu ere egin daitezke, betiere kulturak gure ekonomiari eta gure gizarteari ekarpenak egingo dizkiela bermatzeko. Azpisektoreen arteko aldeak eta alderdi osagarriak hainbat dokumentutan azalduta daude, hala nola [\*Smart endogenous growth: cultural capital and the creative use of skills\*](#) (Hazkunde endogeno adimendua: kultura-kapitala eta trebetasunen sormen-erabilera). Bereziki:

Cunningham et al. (2008) autoreen arabera, kultura-dimentsioaren eta ekonomia-dimentsioaren arteko loturaren lau eredu daude. Honela etiketa daitezke: ongizate-eredua, eredu lehiakorra, hazkunde-eredua eta berrikuntza-eredua. Tradizionalki, lehen ere nabarmendu dugunez, kulturaren ekonomiaren azterketan ongizate-eredua izan da nagusi eta eredu horren oinarria merkatuaren porrotaren argudioa izan da; argudio horren arabera, oro har, ezinezkoa da kultura-jarduerekin enpresa pribatu batek gastuak estaltzeko adina irabaztea eta are gutxiago irabaziak izateko adina. Salbuespen bakarra kultura-enpresa jakin batzuk dira, industria-eskalan produkzio handia dutenak, hain zuzen, eta produkzio hori askotan multinazionalak kontrolatzen edo zuzenean kudeatzen dutela. Arrazoibide berari jarraikiz, egoera horretan, kultura-balioarentzat merkatu bat dago eta etekinak maximizatzen dituzten enpresen portaera etekinak maximizatzen dituen beste edozein enpresaren parekoa izango litzateke (eredu lehiakorra, beraz, zinemaren, musikaren eta irrati-difusioaren sektoreei aplikatzen zaie, baita argialetxeen eta inprimategien sektorearen zati bati ere). (3) eta (4) eredu kasuan, sormen-industriaren egitekoa txertatzen dute azterketan, eta bereziki nabarmentzen dute jardueraren ekonomikoaren maila orokorrean izan dezaketen inpaktua. Hazkunde-ereduan, sormen-industriaren fakturazio-dinamika hazkunde-faktore garrantzitsutzat jotzen da, sormen-sektoreetan eragiten diren zeharkako efektu ugariak direla-eta; eta efektu horiek produkzioko beste sektore batzuetara ere iristen dira. Adibidez, jokoetatik simulaziora eta errealtate birtuala eratzerara industria aeroespazialean; punta-puntako diseinutik kalitatezko fabrikaziora, eta horrela behin eta berriz. Orokorrago hartuta, berrikuntza-ereduan sormen-industriaren balio ekonomikoa honako honen arabera da: ideia edo teknologia berrien produkzioari egiten dioten ekarpenaren arabera, kontuan izan gabe kultura-industriak benetan industria-sektore bat diren ala ez diren, zeren, hori alde batera utzita, berrikuntza eta aurrerapen teknologikoa sustatzen duen sinbolo eta esanahien korrante bat eskaintzen baitute (Bucci, A. et al., 2014: 36).

- KSlek eragile oso desberdinak biltzen dituzte: batzuek diru-laguntza publikoak jasotzen dituzte eta beste batzuk komertzialagoak dira. Sektoreak askotarikoak dira eta benetan zaila izaten da den-denak bilduko dituzten politikak egitea. Sektoreek bat egiten duten kasu baten adibidea izango litzateke eleberri batean oinarritutako film arrakastatsu bat, hiri bateko toki historikoak agertzen direna eta efektu bisual asko erabiltzen dituen. Badira zeharkako hainbat alderdi ere, hala nola hainbat eremutan aplikatu daitezkeen berariazko eskumenak (adibidez: diseinua, arkitektura eta abar) edo jabetza intelektualarekin lotutako alderdiak. Hortaz, KSlak askotarikoak izaki, aukera bat izango litzateke *azpisektoreen arteko konbergentzia eta zeharkako gaiak sustatzea*.

- Italian, esparru orokor bat diseinatu zuten eta, gero, *azpisektore bakoitzeko adituekin egun-erdiko panelak* sustatu zituzten urte osoan. Arazo nagusiak identifikatu egiten dira, laburbildu, eztabaidatu, are gehiago eztabaidatu.... Batzuetan, zaila izaten da hori politikak formulatzeko denborekin uztartzea, bizkor erreakzionatzea eskatzen baitute askotan. Modu horretan jokatzeko erabakia denborarik eta finantzaketarik ezean oinarrituta hartu zen, baina, nolana ere, jarduteko modu erabilgarria izan zen, baita zubi-lana egiteko modua ere, politikak formulatzeaz arduratzen direnen, adituen eta sektoreen artean.
- EBri dagokionez, badago ikuspegi komun eta argi bat: KSlek potentziala dute berrikuntzarako (teknologiaren nahiz gizartearen arloetan), sormenerako, eskualdearen garapenerako, kanpo-arazoetarako eta kultura-diplomaziarako, baita EBren narratiba egokia eta balioak eratzeko ere. Dena den, oreka lortu behar izaten da sormenaren, kultura-lankidetzaren, KSlen, ekonomiaren eta kulturaren artean, agenda publikoak/lurraldeko agendak diren aldetik. Argi dago KSlen eta Espezializazio Adimendunaren artean lotura bat badagoela: ekosistema heldu baten barruan emandako erantzuna izan daiteke hori. EBko zenbait eskualde ildo horri jarraikiz ari dira.

### Eduki Digitalak

- Orkestrak Euskadiko espezializazio adimendunaren estrategian KSlei dagozkien azpisektoreak hartu zituen, eta *EJSN* kodeekin alderatu zituen. Orkestraren ikuspegiak kulturakoa ez ezik, industria-arlokoa ere badenez, eduki digitalei eutsi egin zieten, baina IKTen azpisektoreetara mugatu zituzten eta, zehazki, eduki-aplikazioetara eta -softwarera, uste baitzuten eduki digitalak benetan azpisektore guztietan agertzen direla. Berariazko bi jarduera horiek EJSN kode banari dagozkie: 6201 (Informatikako programazioko jarduerak) eta 6202 (Informatikako aholkularitzako jarduerak). Horri esker, berez industria-sektorekoak diren arren, sormen-osagaia ere baduten enpresen lagin txiki bat lortu zen. Baina sormen hori artearekin eta kulturarekin loturik al dago? Galdera horri erantzuten saiatu beharko genuke. Bestela, edozein sektore izan daiteke sormen-sektore. Prozesua baztertzaila izan zela esan daiteke: KSlen beste azpisektore batzuei zegozkien EJSN kodeak azpisektore horietan utzi ziren, eta eduki digitalekin lotutako kodeak, KSlen beste azpisektore batzuei ez zegozkienak, eduki digitalen azpisektoretzat hartu ziren.
- *Eduki digitaltzat zer jotzen dugun* galdetu beharko genioke geure buruari. Europa osoan partekatutako erreferentziarik ezean, Orkestrak proposatutako ikuspegiak zentzuzkoa dirudi, baina galdera honako hau da, oraindik ere: zerbait ahazten ari ote gara?
- Sustapen ekonomikoaren ikuspegitik begiratuta ere barne-lana egin zen Beaz-en: EJSN kodeak gurutzatu ziren berariazko hainbat sektoretan. Sormen-industrien kasu zehatzean, eduki digitalak bereizi egin ziren, baina EJSN kodeetan oinarritu beharrean, enpresaren azterketan oinarrituta. Beaz-en arabera, eduki digitaleko enpresatzat hartzen dituzte *edukia formatu digitalerako sortzen dutenak*. KEAren [Economy of Culture in Europe](#) Europako kulturaren ekonomiari buruzko azterlanean, IKTak eta komunikazioa KEAk "enpresa konektatuak" deitutako multzoan sartuko lirakeke; enpresa horiek balioa erants diezaioke euren zerbitzuei edo, are gehiago, berriak sortu ere egin ditzakete bestek sortutako eduki digitalen bitartez.

### Salbuespenak: modaren eta diseinuaren sektoreetako berezitasunak

- Diseinuaren azpisektorea biziki garrantzitsua da, kulturaren sektorearekiko oso hurbilekoa eta jasangarritasunaren paradigma delako. Diseinuaren prozesuak lotura handia du kultura-politikekin; izan ere, diseinatutako produktuak eguneroko bizitzan erabiltzen dituztenen kultura-ohituren aldaketekin zerikusia du. Horrenbestez, *diseinuak, gaur egun, eragina du gizartearen diseinuan* eta gizarte-baldintzekin, aniztasunarekin... lotutako gaietan.
- Orkestrak Gasteizen egindako azterketa batean, *modaren sektorean produkzioa baino ez zuten sartu* eta diseinuari garrantzi handiagoa eman zitzaion, helburua honako hau baitzen: Gasteizko diseinu-azpisektoreko eragileen pertzepzioa arakatzea.
- Erresuma Batuan, diseinatzaile-lanetan jarduten dutenak *sormen-langiletzat* jotzen dira, eta horrelako langile asko (eta bestelako sormen-langileak) dituzten enpresak sormen-enpresatzat hartzen dira. Sormen-ekonomia honela neurtzen da: sormen-enpresetan lan egiten duten pertsonak gehi beste sektoreetako sormen-okupazioak.
- Beaz-en, dela modan, dela diseinuan, *lehentasuna diseinuaren existentziari ematen zaio, ESSnet-en bezalaxe*. Moda-arloko zenbait enpresa fabrikatzaile ere badira eta produkzio handia dute, baina ez dira gehiengoak. Beaz-en, industria-diseinua da ardatza, eta diseinu-estudio berriak sortzeko proiektuak ditu xede (laguntzak jasotzeko hautagai diren proiektuen artetik), edo lehendik dauden estudioei produktu berriak eta propioak sortzea ahalbidetuko dietenak. Horrela egiten da bereizketa, eta proiektuak kasuan kasu aztertzen dira. Beste adibide bat: KEAren [Feasibility study on data collection in the CCS in the EU](#) (EBko kultura- eta sormen-sektoreko datuak biltzeari buruzko bideragarritasun-azterketa), zehazki, diseinuaren sekzioan (52. orrialdea).

### Autonomoak sartzea

- Autonomoei ez litzaieke ezikusiarena egin behar, haiek baitira *politiken babesaren gehien behar dutenak*. Ez dira eragile sendoak; ez dute presio-talde handien babesik.
- Egia da autonomoak politiken formulazioan sartuta daudela, baina *estatistikoki zaila da* eragiketetan sartzea.
- Zer egin dezakegu sormen-sektoreetako *autonomoen enpresek osatzen duten %70era* hurbiltzeko? Inbertsio handi bat eginda ere, ziurrenik ez lukete erantzungo. KEBaren ideia azterketa kualitatibo bat egitea da, kontuan izanik autonomoen premiak eta egiteko moduak oso bestelakoak direla (bai kultura-sektorean, bai sormen-sektorean) enpresa handiagoekin alderatuta. Helburua zera da, enpresa moduan nola garatzen diren eta beste eragile batzuekin nola erlazionatzen diren jakitea.
- Hemen ere, autonomoengana hurbiltzeko, *ikuspegi okupazionala* lagungarri izan liteke neurketa tradizionalerik haratago iristeko. Okupazioak lanaren antolamenduarekin zuzenean lotuta egon daitezke, hau da, lan-baldintzekin. Ikuspegi horrek bat egiten du sektore horietan dagoen atomizazioarekin, baina



baita honako dualtasun hauekin ere: berrikuntza teknologikoa/ez-teknologikoa, produktua-prozesua eta abar.

- Okupazioei dagokienez, argi izan dezakegu zeintzuk diren pertsona horien profil okupazionalak, haien trebetasunak, haien gaitasunak eta haien lan egiteko moduak.
- Holandarrek ere autonomoengana iristeko arazo berdina dute. Estatistika ofizialek (esaterako, Merkataritza Ganbera) zenbat elkarte dauden adierazten dute, baina hori da dena, zeren eragile horiek ez baitiete erantzuten estatistika-kontsultei. Ez da erraz konpontzeko kontua, baldin eta ez badira *eztabaidataldeak* egiten; oso konplexua da pertsona horiek guztiak kuantitatiboki barnean hartzea. Holandan, kultura-erakundeen bitartez (Boekman fundazioa, esaterako) saiatzen dira haiengana iristen, baina erantzunen tasa oso txikia da hala ere. Egia esateko, ez dute galderi erantzuteko denborarik.

Sormen-sektoreko langile autonomoen %70 harrigarriki handi horrek zera adierazten du, ziurrenik, lan-baldintzak ez direla onak izango sektorean eta *sormeneko lan-agenda* bat sustatu behar dela. Holandan, bidali diete seinale bat edo beste politikariei eta, oraindik lan asko badago ere egiteke, agenda hori garatzeko diru-kopuruak esleitu dira. Hasiera-hasierako fasean dago hori oraindik, baina aurrerapen esanguratsuak izan dira sensibilizazioari dagokionez (esaterako, museoek bidezko zenbateko bat ordain diezaieten artistei beren artelanak ikusgai jartzen dituztenean; izan ere, lehen, museoen ikuspegia zera zen, artistek eskerrak eman beharko lizkieketela haien lanen "doako publizitatea" egiteagatik). Beste esperientzia interesgarri bat: [SMart](#); agenzia batek artistei ordaintzeko eredu berritzaile bat garatu du, elkarrekiko babesa oinarri hartuta. Zortzi herrialdetan dago. Italian, zenbait profesionalen ustez, balizko konponbidea izan daiteke autonomoen, oro har, lan-baldintzak hobetzeko.

- Pertsona horiei *pizgarriak* eman behar zaizkie, *erantzun dezaten*. Politikei dagokienez, proposamenen bat egin behar zaie parte hartu/erantzun dezaten. Lehen aipatu dugun sormeneko lan-agenda, esaterako, pizgarri egokia izan daiteke parte hartzen duten autonomoentzat. Elkarte eta sareekin harreman ona izatea ere positiboa izango litzateke.
- *Datuak eskatu aurretik, entzun egin beharko litzateke*. Eskatzearen kontu hori susmagarria da; aldiz, entzuteak interesa adierazten du, sektorean zer gertatzen den jakiteko interesa. Horrela, bada, pertsonak beren esperientziak kontatzeko prestasun handiagoa izango dute. Horrek guztiak ere aldaketa bat eskatzen du, erabiliko diren tresna analitikoek dagokienez.
- Erresuma Batuan ere, autonomoengana hurbiltzea erronka bat da, baina jarduera horren neurketak inkesta ofizialen bitartez lortzen dira, oro har. Erresuma Batuko sormen-industrien merkataritza-elkartek (Sormen Industrien Federazioa) autonomoei buruzko berariazko lan bati ekin dio. *Enpresa txikiei* dagokienez, Nestak bideojokoen sektorean lan bat egin du sektore horretako enpresei buruzko informazioa lortzeko, sektorearekin lotutako webguneetatik. Hala nola, lehengo jokoak dokumentatzen dituzten webguneetatik. Informazio hori enpresen erregistro-datuekin alderatzen eta uztartzen dute eta, horri esker, bideojokoen sektoreko enpresen zenbaketa zehatzagoa egin daiteke. Prozesu hori ez da eskalatzeko erraza, ez horixe, KSIentzat, oro har. Alabaina, enpresen webguneetako testua azter daiteke haien jarduera mota zehazteko eta, gero, parte hartzen duten jarduerak ebaluatzeko erabili.

### Banaketaren, artisautzaren eta goi-mailako sukaldaritzaren azterketa

- Banaketa gai orokorra da, ez soilik Euskadin. Konpainia handiak banaketa guztia bereganatzen ari dira. Hori estatistika-mailan txertatzea bera arazoa da. Banaketaren kontzeptu zabalago batera, sektoreartekoago kontzeptu batera jo behar dugu.
- Artisautzari dagokionez, euskal testuinguruaren alde on bat zera da, Foru Aldundiek erregistro administratiboak eta informazio guztia dutela (Kultura Departamentuan kasu batean, eta Ekonomia Sustapen Departamentuan beste bietan). Hortaz, KEBa zalantzan dago artisautza estatistika-eragiketan sartu ala lehendik dauden datuak baliatu beharko lituzkeen.
- Hainbat pertsona aspalditik daude artisauek moduan erregistratuta eta, gaur egun erregistratu nahi izango balute, ez lituzkete baldintzak beteko. Bizkaian, agian Beaz-ek lagun dezake iragazketa-lana egiten.
- Herrialde bakoitzak artisautzaren definizio bat eta tratatzeko modu oso desberdin bat izaten du. Europako zenbait programak artisautzaren definizioa zabaltzen dute eta artisautza-proiektuetarako dirua eskaintzen dute. Baina arazoa honako hau da: toki jakin batean interesgarria zer den zehaztea, artisautza toki baten eta toki horren nortasunaren adierazpen garrantzitsuenetako bat den aldetik (ikus di Matteo, 2018).
- Balio erantsiko gastronomiari dagokionez, KEBa Basque Culinary Center-ekin ari da lanean.

### Edukiak eta beste hainbat gai

- KEBak egindako Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikan kultura-ondarea (museoak, liburutegiak eta abar) txertatuta dago jada, baina azpisektore horretan bada beste arazo bat ere: zaila da industria lagungarriak identifikatzea. Adibidez, zeintzuk dira liburutegi edo artxiboen hornitzaileak? Sektore publikoarentzat lan egiten duten enpresen sare bat da, eta zaila da haien jarraipena egitea; sektorez sektore egin behar izaten da. Horri dagokionez, Orkestrak input-output azterketa bat egin zuen azpisektore bakoitzeko azken erabiltzaileak eta hornitzaileak zeintzuk diren jakiteko.
- Euskal KSIak eta haien *dimentsio eta nazioartekotze europarrak*: a) dimentsio europarra barnean hartuta, Europako elkarte/sare/plataforma/fororen bateko kide ote diren jakiteko, Europako proiektuetan parte hartzen ote duten (zuzeneko finantzaketarekin edo gabe) eta Europako beste KSI batzuekin lankidetzan ari ote diren jakiteko; b) Europan presentziarik ba ote duten edo Europako eta nazioarteko proiektioarekiko interesik ba ote duten; eta c) haien ustez EBak KSIak kultura-arloko kanpo-lankidetzan edo kultura-diplomazian sartzen ote dituen.
- KEBak *euskal kultura- eta sormen-sektoreek Europako eremuan duten parte-hartzearen irudi bat eskaintzeko eginkizuna bete dezake* (alegia, H2020, Creative Europe eta INTERreg Europa proiektuen kopurua eta euskal bazkideen zuzendaritzapeco edo parte-hartzea duten ekimen europarrak). Irudi global hori falta da.

Informazio horrek balio handia du Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritzarentzat, Desk Euskadi Creative Europe erakundearentzat, Etxepare Institutuarentzat, foru aldundientzat eta udalentsat, betiere KSleibabesa ematen jarraitzeko eta sektorearen funtzionamenduari buruz gauza gehiago jakiteko. Adibidez, H2020 programaren finantzaketa jaso duten euskal berrikuntza-proiektu guztiei buruzko informazioa jasotzen du INNOBASQUEk. Informazio hori funtsezkoa da politiko publiko informatuagoa izateko, KSleitzako erantzun eta erronka zehatzak dituen.

- Bestela esateko, *KSleib dimentsio europarrari eta nazioartekotzeari buruzko galderak* beti sartu beharko lirateke KSleib inkestetan, dimentsio horiek funtsezkoak ote diren neurtzeko modu egokia direlako eta informazioa ematen dutelako politika publikoak KSleib premia eta erronkei buruz informatuta egon daitezzen. Gainera, Eusko Jaurlaritzatik arlo horietan inplikaturako sailen zerbitzuaren eta lanaren norainokoaren irudia osatzeko lagungarri dira.
- Azterlanak egitean, garrantzitsua da *eraginkortasuna eta efizientzia bermatzea gastuak betearaztean*. Eraginkortasuna helburu bat duen eragiketa bati dagokio, eta hori funtsezkoa izango litzateke gero zer informazio mota atera beharko litzatekeen zehazteko. Datuak lortzeko zailtasunari dagokionez, enpresak parte hartzeko prest egoten dira baldin eta haien ekarpena baliagarria dela uste badute: berriro ere, eraginkortasunarekin loturik dago hori. Helburua datuak lortzea baldin bada betiere erakunde publikoek euren politikak lerrotzeko aldera, horretarako, erakundeek konpromisoa hartu behar dute, ez dadin diskurtso hutsean gera eta enpresen parte-hartzeak haien mesederako ekintzak ondoriozta ditzan benetan. Efizientziari dagokionez, hobe da "egiten ikastea" "azterketaren paralisia" baino. Azken horrek zera esan nahi du, zeregin batean parte ez hartzea datu gehiegi galtzen ditugulako. Hortaz, eztabaidan eta hausnarketan hainbeste denbora eman beharrean, ekintzari, berrikuspenari, zuzenketari eta hazkunderari denbora gehiago eskaintzea komeni da. Efizientzia ere bada, halaber, beste eragile batzuk jada egiten ari diren horren gainean eraikitzea (esaterako, artisautzaren kasuan, Beaz-en jada eskuragarri dagoen informazio oso zehatza erabilita).
- *Azpikontatzaioaren xehetasunak* galdera interesgarria izango litzateke enpresentzat: Nor azpikontatzen dute eta zeintzuk dira azpikontatzaioarako irizpideak? Lan-merkatua polarizatua dago, antza: hainbat langile oso integratuta daude, lan-baldintza onekin, eta beste batzuk kanpo geratzen direla esan daiteke. Azpikontatzaioa eta autonomoen kopuru handia direla eta, baliteke sektoreetako polarizazio-maila handia ezkutuan geratzea. Enpresek zerbitzu oso espezializatuak azpikontatzen al dituzte? Edo sektoreko langileen artean autoenplegurako dagoen joera orokorrari emandako erantzuna al da azpikontatzaioa? Azpikontatzaioari buruzko datuak beste iturri batzuetatik lor litezke, baina baita enpresei galdetuta ere. Hori oso lagungarria izango litzateke sektorearen osaera, lanaren kalitatea eta aukerak argitzeke.
- *KSleib euskal RIS3 estrategiarekin duten lotura: beste 80 eskualdek – Regional Initiative for Culture and Creativity/RICC sarea osatzen duten 24 eskualdek barnean hartuta– KSleib dituzte beren RIS3 estrategian*

## Ondorioak

- Arteak KSleib espektroan sartzeko hautua agian ez da egokia. Arteak sektore nagusiak dira, non erreproduzigarritasun teknologikoak zeregin oso mugatua betetzen duen. Horren ondorioz, ezin dituzte

antolamenduko industria-eredu osoak ezarri, eta oraindik ere mezenasgoaren logikan (babes publikoa barnean hartuta) oinarritu behar izaten dute. KSlekin nahastuz gero, *arteen eta KSlen artean konparazio desegokiak* egiten dira etengabe, eta konparazio horiek lehenengoan kaltetan izateaz gain, deslegitimatuz ere egiten dituzte, baina jasangarritasun-logika erabat desberdin batean oinarritzen dira, besterik gabe. Horrek ez du esan nahi, noski, ez daudenik estu-estu lotuta: halaxe daude, eta horregatik aipatzen dugu *kultura- eta sormen-ekologia*. Esanak esan, funtsezkoa da, haren ustez, sektore nagusiak eta KSlak bereiztea.

- KSlak definitzeko saiakera orok porrota izango du jomuga. Orain, badira *KSlen osagai bereizgarriak KSlenak ez diren sektoreetan* (adibide ugari daude, hala nola automobiletako sonorizazioa). Gainera, txertatzeko irizpide kritikoen eta ez-kritikoen arteko txandakatze hori konplikatu ez ezik, defendatzeko zaila ere bada. Baliteke konponbide bakarra zera izatea, goranzko ikuspegia hartzea, kultura- eta sormen-produkzioaren geruza anitzeko sare-egitura berreraikitzeari dagokionez, eta mugak ezartzea eragile jakin batzuen arteko elkarreraginaren koherentzia eta benetako maiztasunean. Horrek esan nahi du gizarte-zientzien ikuspegi konputazionalaren alde egiten dela (sare sozialetako datuak ere erabilia), eta lagungarri izan dakiguke pertsona bakarreko enpresak arakatzeko. Era berean, irizpide estatistiko nazionalen idiosinkrasia gainditzen ere lagun diezaguke.
- *Egiturazko elkarreraginaren ikuspegi* horrek sektoreen berezitasunak azaltzen ere lagun diezaguke, produkzio-moduei eta banaketari dagokienez.
- Ez badugu *operazionalki erabilgarria den ikuspegia* lortzen, berriro ere arriskua izango dugu; hain zuzen ere, KSlen politikak diseinatzeko ebidentzian oinarritutako ikuspegi erreala ez eratzeko arriskua, eta politika horiek sektorearen berezitasunen arabera ez egokitzeko arriskua.



## GONBIDATUTAKO ADITUAK

**Marina Aparicio Álvarez.** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko eta Etxepare Institutuko kanpo-laguntzailea.

**Lourdes Aranguren Sudupe.** Kultura-plangintzako teknikaria eta Kulturaren Euskal Behatokiko arduradun ohia, Eusko Jaurlaritza.

**Luca Dal Pozzolo.** Zuzendaria, Osservatorio Culturale del Piemonte.

**John Davies.** Ikerketa Ekonomikoko laguntzailea, Nesta.

**Camila de Epalza Azqueta.** Europako Gaietarako teknikaria, Eusko Jaurlaritzaren EBrako ordezkaria, eta Regional Initiative for Culture and Creativity/RICC sareko burukidea

**Pantxo Etchegoin.** Zuzendaria, Euskal Kultur Erakundea.

**Mikel Etxeberria Agirresarobe.** Kulturaren Euskal Behatokiaren arduraduna.

**Xavier Fina.** Zuzendaria, ICC Consultants.

**Sabin Goitia Goienetxea.** Sormen eta Kultura Industrien aholkularia, Eusko Jaurlaritza.

**Lucia Graña Fueyo.** Aholkulari teknikoa, Beaz, Bizkaiko Foru Aldundia.

**Marielle Hendriks.** Zuzendaria, Boekman Foundation.

**Aintzane Larrabeiti.** Bazkide-aholkularia, ICC Consultants.

**Valentina Montalto.** Ikerketa-laguntzailea eta analista politikoa, Ikerketa Zentro Komuna, EB.

**Joxean Muñoz Otaegi.** Kulturako sailburuordea, Eusko Jaurlaritza.

**Mercedes Oleaga.** Ikerketako bideratzailea, Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deusto Fundazioa.

**Cristina Ortega Nuere.** Saioaren koordinatzaile zientifikoa. Irakaslea, Kataluniako Unibertsitate Oberta.

**Ignacio Otalora.** Zuzendari nagusia, DigiPen Institute of Technology Europa-Bilbao.

**Egoitz Pomares.** Ikertzailea eta proiektu-kudeatzailea, Sinnergia Social Innovation, Euskal Herriko Unibertsitatea.

**Pier Luigi Sacco.** Aholkulari berezia, Kultura eta Hezkuntzako komisario europarra.

**Renzo Turatto.** Politikaren analista, OECD-Leed Venezia bulegoko arduraduna.

**Josean Urdangarín Arrizabalaga.** Kultura-plangintzako arduraduna, Eusko Jaurlaritza.

**Andreas Johannes Wiesand.** ERICarts Kulturako Ikerketa Institutu Europarraren zuzendaria.

## KEBaren LEHENAGOKO LANAK

*EAEko kultura-arloko enpresen, enpleguaren eta lan-merkatuaren analisia* (2016) [Euskaraz]. Online eskura daiteke, hemen: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informazioa/eaeko-kultura-arloko-enpresen-enpleguaren-eta-lan-merkatuaren-analisisa-2016/r46-19123/eu/> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Kultura eta Sormen Industriak* (2013) [Euskaraz]. Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_sormen\\_industri\\_2013/eu\\_def/index.shtml](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_sormen_industri_2013/eu_def/index.shtml) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak. Oraina eta geroa* (2014) [Euskaraz]. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Sinergiak Social Innovation zentroari enkargatutako lana. Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_icc\\_2014/eu\\_def/index.shtml](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_icc_2014/eu_def/index.shtml) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Kultura Ohiturei buruzko Panela* (hiru jasoaldi, 2016-2017) [Euskaraz]. Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/informacion/keb\\_kultur\\_ohitura\\_panela/eu\\_def/index.shtml](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/informacion/keb_kultur_ohitura_panela/eu_def/index.shtml) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Euskal Herriko kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa* (2007-2008) [Euskaraz] (2008). Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura\\_ohiturak/eu\\_ohiturak/ohiturak.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura_ohiturak/eu_ohiturak/ohiturak.html) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Euskal Autonomia Erkidegoko Arte eta Kultura Industrien estatistika* (biurtekoa, 2007-2015) [Euskaraz]. Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/keb\\_arte\\_industriak/eu\\_arte\\_ind/arte\\_industriak.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/keb_arte_industriak/eu_arte_ind/arte_industriak.html) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Synthesis of Cultural Indicators* (2016) [Ingelese]. Online eskura daiteke, hemen: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_adier\\_hautatuak\\_2016/es\\_def/adjuntos/Synthesis\\_of\\_cultural\\_indicators\\_2016.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_adier_hautatuak_2016/es_def/adjuntos/Synthesis_of_cultural_indicators_2016.pdf) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

*Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan* (2016) [Euskaraz]. Online eskura daiteke, hemen: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informazioa/emakumeen-presentzia-ikusizko-arteetan-eta-ikus-entzunezkoetan-2016/r46-kebbehat/eu/> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

\*\*\*\*\*

Esteka orokorrak:

- KEBak egindako Eragiketak eta Azterketa Estatistikoak: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-kebestat/eu/> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- KEBak egindako Azterketa Kualitatiboak: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informazioa/keb-beste-argitalpen-batuzk/r46-19803/eu/> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- KEBaren Adierazleak: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=2> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

## MATERIAL OSAGARRIA

- Agovino, M. Alessandro, C., Sacco, P. L. (2013). *Cultural Access and Mental Health: An Exploratory Study*. Online eskura daiteke, hemen: [https://www.researchgate.net/publication/257029216\\_Cultural\\_Access\\_and\\_Mental\\_Health\\_An\\_Exploratory\\_Study](https://www.researchgate.net/publication/257029216_Cultural_Access_and_Mental_Health_An_Exploratory_Study) [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- Austrian Institute for SME Research and VVA Europe (2016). *Boosting the competitiveness of cultural and creative industries for growth and jobs*. Brusela: Europako Batzordea. Online eskura daiteke, hemen: [https://ec.europa.eu/growth/content/boosting-competitiveness-cultural-and-creative-industries-growth-and-jobs-0\\_es](https://ec.europa.eu/growth/content/boosting-competitiveness-cultural-and-creative-industries-growth-and-jobs-0_es) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Bucci A., Sacco, P. L., Segre, G. (2014). *Smart endogenous growth: cultural capital and the creative use of skills*. Online eskura daiteke, hemen: [https://www.researchgate.net/publication/262575216\\_Smart\\_endogenous\\_growth\\_Cultural\\_capital\\_and\\_the\\_creative\\_use\\_of\\_skills?ev=publicSearchHeader&\\_sg=UvTmLIAaexabFGnroELqgwhfDmFqbMYn8yUvW DqgOf5- FiW17m3hqkY5S4VNa3ZOA5802Yz5njAUoA](https://www.researchgate.net/publication/262575216_Smart_endogenous_growth_Cultural_capital_and_the_creative_use_of_skills?ev=publicSearchHeader&_sg=UvTmLIAaexabFGnroELqgwhfDmFqbMYn8yUvW DqgOf5- FiW17m3hqkY5S4VNa3ZOA5802Yz5njAUoA) [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- Centro OCSE per lo sviluppo locale di Trento (2016) [Italieraz]. *ACTORS Italia. Attrattori Culturali per il Turismo e l'Occupazione nelle Regioni del Sud Italia. Dalla creatività all'impresa creativa*. Trento: LEED, MiBACT eta OECD. Online eskura daiteke, hemen: <http://www.oecd.org/cfe/leed/trento-mibact-2014-it.htm> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Europako Kontseilua/ERICarts (2017). "Monitoring Government Action to Implement Social and Fiscal Measures for Self-Employed Artists (Selected European Countries)". in Europako Kontseilua/ERICarts, *Compendium of Cultural Policies and Trends in Europe*, 19th edition.
- Di Matteo, Giulia (2018). *Made in Europe: mapping European policies and analyzing selected case studies in the field of artistic and traditional craftsmanship*. Berrikuntza eta Antolamendua Kulturari eta Arteetan, Alma Mater Studiorum Ekonomia, Kudeaketa eta Estatistika Eskola. Università di Bologna, 2018. Gainbegiralea: Luca Dal Pozzolo irak.
- Echeverría, Javier (arg.) [Gaztelaniaz] (2017). *Industrias Culturales y Creativas: Perspectivas, Indicadores y Casos*. Donostia: Sinnergiak Social Innovation. Online eskura daiteke, hemen: [https://issuu.com/sinnergiak/docs/industrias\\_culturales\\_creativas\\_ech](https://issuu.com/sinnergiak/docs/industrias_culturales_creativas_ech) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- ERICarts, Capiou, Suzanne and Wiesand, Andreas Johannes (2006). *The Status of Artists in Europe*. Brusela: Europako Parlamentua, Egiturazko eta Kohesioko Politiken Departamentu Tematikoa.
- Europako Batzordea (2017). *Mapping the creative value chains. A study on the economy of culture in the digital age: final report – Study*. Online eskura daiteke, hemen: <https://publications.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/4737f41d-45ac-11e7-aea8-01aa75ed71a1> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].




- Europako Batzordea (2017). *The cultural and creative cities monitor survey*. Bilbo. Online eskura daiteke, hemen: <https://composite-indicators.jrc.ec.europa.eu/cultural-creative-cities-monitor/cities/ES019C1> [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- Europako Batzordea (2018). *The role of public policies in developing entrepreneurial and innovation potential of the cultural and creative sectors*. OMC Koordinatzeko Metodo Irekiko Estatu Kideetako adituen lantaldearen txostena – Estudio. Online eskura daiteke, hemen: <https://publications.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/5d33c8a7-2e56-11e8-b5fe-01aa75ed71a1/language-en/format-PDF> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Europako Batzordea. *European cooperation: the Open Method of Coordination*. Online eskura daiteke, hemen: [https://ec.europa.eu/culture/policy/strategic-framework/european-coop\\_en](https://ec.europa.eu/culture/policy/strategic-framework/european-coop_en) [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- Eurostat (2015) *Culture statistics – private expenditure on culture*. Online eskura daiteke, hemen: [http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Culture\\_statistics\\_-\\_private\\_cultural\\_expenditure&oldid=341782](http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Culture_statistics_-_private_cultural_expenditure&oldid=341782) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Eurostat. (2017). *Culture statistics - frequency and obstacles in participation*. Online eskura daiteke, hemen: [http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Culture\\_statistics\\_-\\_frequency\\_and\\_obstacles\\_in\\_participation](http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Culture_statistics_-_frequency_and_obstacles_in_participation) [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- KEA (Europako Gaiak). (2016). *Economy of culture in Europe*. Online eskura daiteke, hemen: <http://www.keanet.eu/studies-and-contributions/economy-of-culture-in-europe/> [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a]
- Montalto V; Jorge Tacao Moura C; Langedijk S; Saisana M. *The Cultural and Creative Cities Monitor. 2017 Edition*. doi: 10.2760/031627 Online eskura daiteke, hemen: <https://composite-indicators.jrc.ec.europa.eu/cultural-creative-cities-monitor/> [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 20a].
- Nesta and Arts Council England (2017). *Digital Culture 2017*. Online eskura daiteke, hemen: <https://www.nesta.org.uk/publications/digital-culture-2017> [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Raveney, Francine (2017). "Changes in the film (and the audiovisual) sector(s) re. gender equality from 2012 to date and their possible impact on greater inclusion of gender equality within the Compendium on Cultural Policies". ERICarts / Europako Kontseiluko Adituen 16. Batzarrean egindako aurkezpena. Europako Kultura Politiken eta Joeren Laburpena, Praga (Txekiar Errepublika), 2017ko azaroaren 8-10. Online eskura daiteke, hemen: <http://www.culturalpolicies.net/web/files/310/en/Raveney.pdf> [Kontsulta-data: 2018ko ekainaren 8a].
- Sinergiak Social Innovation (2013). *Gipuzkoa creativa*. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat prestatutako txostena. Online eskura daiteke, hemen: [https://issuu.com/sinergiak/docs/gc-informe-final\\_en](https://issuu.com/sinergiak/docs/gc-informe-final_en) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].
- Sinergiak Social Innovation (2014) [Gaztelaniaz]. *Industrias Culturales y Creativas en Euskadi: Presente y Futuro*. Eusko Jaurlaritzarentzat prestatutako txostena. Online eskura daiteke, hemen:

[https://issuu.com/sinnergiak/docs/industrias\\_culturales\\_creativas\\_eus](https://issuu.com/sinnergiak/docs/industrias_culturales_creativas_eus) [Kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 23a].

Soendermann, Michael (2014). "What is the true Value of the Culture and Creative Sectors in Europe? Towards a statistical method for measuring the socio-economic impact of culture as a basis for cross-national comparisons and monitoring". ERICarts Europako Kontseiluko Adituen 13. Batzarra. *Compendium of Cultural Policies & Trends in Europe*, Brusela, 2014ko abenduaren 4-5.

Sturabotti, Domenico (n.d.). "Metodologia Fondazione Symbola. Confronto definizioni industrie culturali e creative". PPT aurkezpena.



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

In collaboration with:

**3W** alka Cultural Research  
Training and  
Knowledge Transfer